


berria
2014ko otsailaren 23a

Igandea

LEHEN MUNDU GERRA 1914-1918

MIN HANDIA



Sarraskia, leperko Hirugarren Batailan; Passchendaele ere esaten diote bataila horri. 1917ko uztailean hasi eta azarora arte iraun zuen. FRANK HURLEY

LUBAKIETATIK LUBAKIRA

Gerra Handiak arrasto sakona utzi zuen Euskal Herrian: 6.000 hildako eta milaka zauriturekin ordaindu zen, odolez. Iparraldeko euskal herritarrak hegoaldekoengandik gehiago bereizi ziren, eta Frantziara sendo lotu.

Irene Lasa

Egun gutxitan iritsi ziren gerra hotsak Ipar Euskal Herrira. Ordura arte, Europako iskanbilek eta, esaterako, Sarajevoko atentatuak ez zuten herritarren jakin-minik pizten. Baina 1914ko uztailaren azken asterako abian zen gerraren makineria, propaganda tarteko. Baionan izan zuen horrek erantzunik: uztailaren 29an, Armen plazan, 49. erregimentuko musika bandak, alkatearen eskariz *Marseillaise* jotzen zuen bitartean, Askatasunaren plazan zenbait bakezale —tartean Fernand Elosu doktorea zela— gerraren kontra biharamunean egitekoa zuten mitineko panfletoak banatzen ari ziren, jendetzak inguratu eta etxeratu egin behar izan zuten arte. Haien jarraitzaileen eta kontrakoen istiluak izan ziren, Elosu doktorearen etxe parean. *Marseillaise* kantatzen zuten batzuek, eta *Internazionala* besteek. Halaxe kontatzen du Jacques Garatek Auñamendi entziklopedian.

«Baina behin Frantziak Alemaniari gerra deklaratu zionean, lehentasuna nazioak hartzen du, Batasun Sakratuak», dio Eneko Bidegainek, Mondragon Unibertsitateko irakasle eta *Lehen Mundu Gerra Eskualduna aste-karian* tesiaren eta gutxi barru plazaratuko den *Lehen Mundu Gerra eta Euskal Herria* liburuaren egileak. «Ezker-eskuin zatiketa apaldu egin zen; errepublikazale eta monarkikoen eta baita erlijioso eta laikoaren arteko banaketak ere desegin egin ziren; denek bat egin zuten Alemaniaren kontra».

Gerra laburra izango zen ustean, milaka gizonak batu behar izan zuten armadara. 18-49 urte bitarteko gizon guztiak deitu zituzten, eta euskal herritar gehienak Baionako 49. infanteria erregimentuan —eta hari lotutako beste erregimentuetan— eta Paueko 18. erregimentuan —eta hari lotutakoetan— sartu zituzten. Hala, 1914ko abuztuaren 7an, Baionako kaleak zeharkatu zituzten geltokira zihoazen lehen ehunka soldaduek, jendetzak bide bazterretatik eta leihotatik agurtzen zituela. Hiru egunen buruan, 25.000 bat soldadu abiatu ziren Baionatik gerrara. Pirinio Behereetik 45.000 bat joan omen ziren orotara. Euskal herritarrak, zenbat? Ez dago argi.

Egia da, baita ere, Ipar Euskal Herriak alde horretatik bazuela berezitasunik, gerra hasieratik intumisoen arazo agertu baitzen. Asko ziren, beste toki batzuen aldean. «Baina hori aurretik zetorren; ezin da lotu zuzenean ge-

rrarekin», baieztatu du Bidegainek. Izan ere, egun haieran intumiso agertu zirenetatik asko lehendik ziren halako, gehienbat Ameriketara emigratu zutelako. Dena den, Jacques Garatek kontatzen duenez, uztailaren amaieran Mauleko suprefeta jada eskatzen hasia zen hegoaldeko mugak zaintzeko, «hainbat gazte mobilizazioari ihes egin nahian» zebiltzalako.

Abiatu ziren soldaduak, bada, Belgikara, abenturara, gutxi iraungo zuen gerra *heroikora*. Haien uste onak ezerezean geldituko ziren egun gutxian. Frantziako eta Britainiar Inperioko armadek Belgikan barneratutako alemaniarren eraso eta nahi zuten, eta Charleroi hirira heldu. Bataila abuztuaren 21ean hasi zen, eta, bi egun geroago, Gozee hiria defentsaren ardura zuen 49. erregimentuak sekulako artilleria eraso jasan zuen. «Euskal herritar asko hil zen hartan», dio Bidegainek, eta hala erakusten dute erregimentuen hildakoen zerrendek. Biharamunean argia zen aliatuen porrota, eta erretira sarraskia izan zen; «abuztu eta irail horretan izan ziren hildako gehienak gerra osoan».

Damen Bideko hilobia

Paristik 70 kilometrora zeuden alemaniarrek geldiaraztea irailaren 6tik 12rako Marneko Guduan lortu zuten aliatuek. Aisne ibaira erretiratu zen orduan Alemaniako armada, eta han frontea egonkortu egin zen. Hori bai, bi aldeek hobetsi zuten onena aurkaria iparraldetik inguratzea zela, eta iparralderako, itsasorako lasterketan hasi ziren bi bandoak. Arras, Ijser, Ieper... Bataila bat bestearen atzetik, azkenean fronte lerroa itsasoraino luzatzeko 1914ko azaroaren 22an. Hor bukatua zen mugimenduen gerra, eta posizioen gerrari eman zitzaion hasiera, zeinak euskal soldaduek lubakietako «sator bizitza» deitzen zu-

ten hura ekarri zuen. «Ordurako, egonkortutako fronte-an ziren euskaldunak, Craonnen, *Damen Bidea* deitzen denaren behealdean». Pikardia eskualdeaz ari da Bidegain; Reimsetik ipar-ekialdera dago Damen Bidea, eta 1914ko irailaren 13rako han zeuden 18. eta 49. erregimentuak. Ez zen astebate pasatu hilaren 20 eta 21eko eraso

bortitzek hainbat euskaldun hil zituztela.

Bataila handi eta bortitzenak, Champagnekoa, Neuve Chapelle, Igserko bigarrena, Artoiseko bigarren bataila... beste toki batzuetan ziren, baina horrek ez zuen esan nahi euskal soldaduen bizitza samurra zenik Damen Bidean. 1916ko apirilean utzi zuten toki hartan, lubakietan zeudela, behin eta berriz jasan zituzten erasoak, airekoak, artilleriakoak eta, 1915etik aurrera, baita alemaniarren gas pozoitsuak ere.

Desertoreak

Baldintza haietan, bitarte horretan iritsi ziren lehen opor baimenak, bai eta lehen desertzioak ere. Muga hain hurbil izanda, beste aldean hainbatek familia izanda, Euskal Herriko soldaduen artean izango ziren batzuk, 1915eko martxoan Pirinio Behereetako prefektuak berak iradoki baitzuen soldaduen opor baimenak bertan beheira uztea eta euskarazko posta kontrolatzea, alarmismoa eten nahian.

Desertzioak soilik ez, koldarke-ria leporatuta soldaduei egindako epaiketak ere izan ziren, 2.500 orotara Frantzian, eta gehienbat gerrako lehen bi urteetan. Kondenatutakoetatik 670 bat izan ziren fusilatutakoak, mendeurrenaren harira eratutako batzorde zientifikoaren arabera, «desobedientziaileekin eredu emateko». Koldarrak baino gehiago, in-



Granadak jaurtitzeko trebeak ziren ospea hartu zuten euskal soldaduek, pilotari ezaugarriekin. Mitoa ere sortu zen: Joseph Apeztegi Kanboko xikito-k xisterarekin jaurtitzeko omen zituen granadak. Hori ezinezkoa zela diote hainbat ikertzailek. Irudiaren inguruan, esan izan da eskuineko soldaduek eskuin eskuan xistera duela.

epaiketak ere izan ziren, 2.500 orotara Frantzian, eta gehienbat gerrako lehen bi urteetan. Kondenatutakoetatik 670 bat izan ziren fusilatutakoak, mendeurrenaren harira eratutako batzorde zientifikoaren arabera, «desobedientziaileekin eredu emateko». Koldarrak baino gehiago, in-

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)



Frantziako armadako soldaduak Verdungo batailan, lubaki batean babestuta, 1916an. Hamar hilabete iraun zuen Verdungo batailak.



49. erregimentuko soldaduak, data jakinik ez duen argazki batean; jantziel begira, gerra hasierakoa izango da.



Damen Bidean hil ziren, bi borrokalditan, gerran hildako euskal soldaduen herenak.



Idatzi bat gerretan hildako herritarren omenezko oroitarri batean, Donibane Garazin. IBAN ETXEZAHARRETA / ALDIZ



Euskal herritarren monumentua deiturikoa Damen Bidean, Pirinio Behereko soldaduen omenez altxaturikoa.

04 LEHEN MUNDU GERRA 1914-1918

ATZERRITAR
LEGIOKO EUSKAL
SOLDADUAK

Iparaldean askok gerrari uko egiten zioten bitartean, Hego Euskal Herrian izan ziren boluntario aurkeztu zirenak. Kopuru zehatzik ez dago, baina ehundik gora, berrehun edo hirurehun bat izango zirela idatzia du Richard Vargas Golaronsek Auñamendi entziklopedian, ehun pasatxo topatu baditu ere. Zergatik joan ziren gerrara? Aliatuen aldeko propaganda zegoen, Frantziako herrialde aurrerakoi irudia zuen, eta aliatuak nazionalitate zapalduen alde agertzen ziren. Vargas Golaronsen arabera, ez ziren alderdi jakin bateko kide gisa joan, eta haien artean abertzaleak, sozialistak eta beste zeuden. Horietako batzuk jada Frantziako bizi ziren, edota etorkinak ziren Ameriketako ere. Hego Euskal Herrian, Bilboko Frantziako Kontsulatuaren eman zuten izena, eta beste



Jose Peronelle eta Francisco Beaskoetxea boluntario arrigorriagarriak.

zenbait zuzenean Baionara joan ziren. Asko Frantziako Atzerritar Legioaren barnean ibilliko ziren gerran, haietako askok gehiago ziren katalanekin batera. Izan ere, besteak beste, Unio Catalanista alderdiak bultzatuta, mila hegoaldeko katalan joan ziren Atzerritar Legiora, nahiz eta zenbait urtetan 10.000 zirela esan izan den. Hego euskal herritarrek eta katalanek Atzerritar Legioaren Martxako Lehen Erregimentuan bildu zituzten, eta 1914ko irailean jada Marneko erasoaldian ziren. 1915ean, La Targetten buruz buruko borrokan fama hartu zuten, garaipenak hildako kide askorekin batuz. Verdunen ere izan ziren, eta 1917an Damen Bidean. Hainbat izen aipatzen ditu Vargas Golaronsek, hala nola Zarandieta, Arteaga, Arrieta, Ibarra anaiak, Larrare, Txabarria... hilak guztiak. Bizirik ateratzea eta, gainera, ohore domina izatea lortu zuten beste batzuek, esaterako, Gasteizko Jose Martinezek, Donostiako Jose Aranberrik, Santurtziko Inocencio Andresek eta Rafael Erasok. 1918ko abenduan, Bartzelonako Iberia aldzikariak Arrigorriarako bi mutilen berri eman zuten, Francisco Beaskoetxea eta Jose Peroneilleren berri, hain zuzen.

(Aurreko orrialdetik dator)

fernu hartan egun batetik bestera hautsi ziren gizonak ziren haietako asko. «Horietako bat izan zen Pierre Etxeberri Izpurako gaztea», dio Bidegainen, fusilatuen artean bi euskal soldadu zeudela gogoan. «25 urteko gazte hura 1914ko urriaren 21ean fusilatu zuten. Haren hobena? Inguruan kide guztiak hilak, dena suntsituta, galdu egin zuten, nora ezean. Biharamun goizaldean iritsi zen komisariara. Eta han atxilotu egin zuten, borroka tokitik alde

egiteagatik guda garaian. Eta hil egin zuten. Baionako kasuan, fusilatutako soldaduen aitzakioen bere semeak ez zuela gerran izan behar buruko arazoak zituelako», 670 horiez gain, beste ehun bat soldadu ere fusilatu zituzten, baina espioiak izatea edo delituren bat egitea leporatuta, hilketa edo bortxaketa adibidez.

Verdungo bataila hasia zen (1916ko otsailaren) 18. eta 49. erregimentuak hara apirilaren iritsi zirenerako —euskal soldaduak zituzten horiek—. Alemaniarren erasoarekin hasitako gerrako batailarik odoltsuena hark hamar

hilabete iraun zuen, eta hasieran alemanek eskuratutako lurraldea atzera berreskuratzea soilik lortu zuten aliatuek. Hildakoen kopurua izugarria izan zen. Aldi berean, uztailako aliatuen eraso baten ondoren borrokatu ziren iparralderago, Sommen. Milaka hildako eta zauritu izan ziren, aliatuek 10-40 kilometro irabazteko.

1917ko apirilean, Verdun utzi eta atzera Damen Bidean ziren euskal soldaduak, gerraren kapitulu negargarri netako baten erdi-erdian. Nivelle jeneralaren agindupean, Frantziako armadak erasoaldia hasi zuen, eta bi egun 100.000tik gora gizon galdu zituen, horietatik 30.000 hilak. Hala ere, erasoaldiarekin jarraitzeko agindua eman zuten jeneralak. Eguna aurrera, soldaduen keme-

Iparaldean, herririk txikienean ere, hor daude gerra hartan hildako herritarren omenezko orotarriak

na gain behera, maiatzaren 20an hainbat erregimentu matxinatu egin ziren. «Euskaldun oso gutxi zegoen matxinada horietan», dio Bidegainen. «49. erregimentua ez zen altxatu; 18.eko batzuk bai, baina euskaldunik ez zen tartean. Ba omen ziren matxinoen artean Hego Euskal Herriko Atzerritar Legiora etorritakoren batzuk».

Gerra osoan hildako euskal herritarren herenak hantxe gelditu ziren, Damen Bidean, han izan ziren bi aldeetan. Hortik aurrera, asko mugitu ziren euskal soldaduak zituzten erregimentuak. Bitartean, Errusiako Iraultza, AEBen parte hartzea eta beste hainbat jazoera gertatu ziren 1918ko azaroaren 11n armistizioa iritsi arte. Lau urte eta 6.000 euskal herritarren biziak joanak ziren orduaroko. Milaka izango ziren zaurituta itzuliko zirenak.

Banaketa sakona

49. erregimentuak 1919ko uztailaren 27an egingo zuten bere sarrera Baionan. *Courier de Bayonne* aldzikariak kontatu zuten nola omenaldiz betetako egun hari Guy Cazavenave tenoreak eman zion amaiera. *Marseillaise* kantatu zuen, eta gero, norbaitek hala eskatuta, *Gernikako Arbola*. «Halaxe amaitu zen zeremonia, guztia bikain laburtzen duten hitz batzuekin: 'Viva Euskal-Herria eta Eskuaduna!'».

Joel Rocafort • Ikerlaria

«Batzuetan gerriraino iristen zitzaien lohia, itotzeraino»

Gerla egin zuten itsasaldeko lapurtarrek zer bizi izan zuten ez ahanzteko, 'Avant oubli' liburua idatzia du Rocafortek.

Nora Arbelbide

Baiona, Angelu, Miarritze, Bidarte, Getaria, Donibane Lohizune, Ziburua, Urruñeta eta Hendaia. Bederatzi hiri, eta 2.000tik gora izen. Bertako hilen izenak. Noiz sortuak, noiz hilak, lanbidea, armadako lekua eta gurasoen izenak. *Avant oubli* (Atlantica) liburuan, gerla egin zuten horiek «ahantzi baino lehen» biltzen ahalagindu da Joel Rocafort ikerlaria. «Nor ziren» jakiteko.

1914ko agorriaren 7an, 1.600 gazte abiatu ziren Baionako geltokitik. Deskribatzen dituzu San Izpirituko zubia zeharkatzen, letratuak, arrunt desegokiak zituzten jantzi batzuekin, eta 30 kiloko zakuak bizkarrean, lokarri hertsiegietatik tiraka...

1870. urtean bezala jantziak ziren. Galtza gorriak zituz-

ten, eta beti berokia soinean, udan ere bai. 14ko uda bereziki izugarri beroa izan zen. Euskal itsasaldeko lehen gerrako hila eguzki kolpe baten ondorioz hil zen, ibilketa batean.

Lubakietako egunerokoaz usain higuigarri hori aipatzen duzu, egarriak sortu egonezina... Nola deskriba zenezake infernua?

Neguan, hotza. Baina baita lohia ere. Kasik etengabea. Batzuetan, gerriraino iristen zitzaien. Itotzeraino. Badira lohian itorik hil zirenak. Soldadu zauritu batzuk, obus kraterretatik ezin jalgiz. Horri kirats izugarria gehitu behar zaio. Bi aldeetako lubakien artean, norenik gabeko lurrak bazeuden. Batzuetan, 800 edo 500 metrokoak, baina baita 30-40 bat metrokoak ere. Norenik gabeko lur horietara bakarrik atakatzeko, posizio bat berenganatzeko atera zitezkeen. Baina eremu horietan zaurituak baldin bazeuden, horien biltzeko su-etenik ez zen izaten, salbuespen gutxi batzuetan ez bazen. Baziren ere biltzen ez ziren hilak. Hilikiak bihurtzen zirenak. Egundaino ez dugu hortik jalgitzen zen usainik usaindu. Eta, gero, bazegoen lubakietako populakuntza guztia.

Erregimentu batean 3.000 soldadu zeuden.



AJURORE LUCAS



LEKEITIOKO ERBESTEA

Serbiar nazionalista batek Frantzisko Fernando Austriakoa eta haren emaztea hil zituenean, Zita Borboi-Parmakoaren bizitza norabidez aldatu zen, haren senar Karlos Austria-Hungariako inperioaren oinordeko bihurtu baitzen. Eta, hala, Lehen Mundu Gerra bete-betean zela, 1916ko azaroan, Franz Joseph I.a Austriakoa

hil, eta enperadore bihurtu ziren Karlos eta Zita. Baina gerraren amaierarekin batera etorri zen inperioaren suntsiketa, haren barnean zeuden hainbat herrialdeetan estatu berriak sortu zirenean.

Erbesteratu egin behar izan zuten enperadoreek. Hasieran Suitzara, eta gero Madeirara. Pneumonia baten erruz, han hil zitzaion senarra Zitari, zortzigarren umeaz haurdun zegoela. Alfontso XIII.a Espainiakoa eman zion babes, eta Madrilan izan zuen neskatua, 1922an. Eta erregearen borondatez iritsi zen doluzko beltzez jantzitako enperatriza, zortzi seme-alabekin, Lekeitiora. Harpidetza publiko baten bidez —buruan Alfontso XIII.aren ekarpena zuen— erosi zen Urribarren jauregia, enperatrizari oparitzeko. Horretarako sortutako elkartearen zeuden Bizkaiko oligarkiako kide entzutetsuenak, abertzaleatasunaren hedapenari aurre egiteko sortutako Liga de Accion Monarquicakoak denak. Hori bai, jauregia mantentzeko lanak Lekeitioko Udalak ordaintzen zituen.

Sei urtez, 1929ra arte bizi izan ziren Lekeitioko Zita enperatriza eta haren seme-alabak. Handik Belgikara joan ziren, eta gero, Bigarren Mundu Gerra iristean, AEBetara ihes egin zuten. Lekeitioko oroimenean gordeztzen zuten seinale, Zitaren seme zaharrena, Otto von Habsburg (1912-2011), 1951n itzuli zen Lekeitiora, bisitan, bere eztei bidaiari. Euskarazko hitz batzuk ere goratzen omen zituen oraindik.

HEGOALDEAN, GEHIENAK ALIATUEN ALDE

Bizkaia Ingalaterrarekin zituen loturen eragina nabaria zen. 1916an, autodeterminazio eske hasi ziren abertzaleak.

Irene Lasa

Ameriketako azken koloniak galdu berri, batasun arazo handiak bere baitan, ekonomikoki ere gaizki... Ahultasuna: hori izan zen Espainiak bere burua neutral deklaratzeko arrazoia. Hala ere, banaketa izan zen bando baten edo bestearen alde, eta Espainian asko germanofilo gisa agertu zen, tartean, dirudienek, Alfontso XIII.a erregea.

Halako banaketa izan zen Hego Euskal Herriaren ere, baina nabarmen gehiago izan ziren aliatuen aldekoak. Alemanen aldekoen artean, Iñaki Goigana historialariak karlistak nabarmetzen ditu. «Haien ikuspegi politikoak joera germanofiloagoa zeukan. Alemanian monarkia ez zen absolutua, baina kaisarraren boterea oso handia zen. Aldiz, errepublikano, abertzale eta, oro har, liberalek joera handiagoa zeukaten Frantzia edo Ingalaterrarekiko, herrialde horiek demokratagoak zirelakoan». Esan izan da, hala ere, abertzaleen artean, Sabino Aranaren anaia Luis ere Alemaniaren aldekoa zela. «Ez dakit horrenbeste zen; entzun dut justu kontrako zela esaten ere».

Euskal Herriaren gehiago izan ziren aliatuen aldeko agertu zirenak. Eta horretan zeri-kusi handia izan zuen Bizkaia Ingalaterrarekin zuten loturak. «Gales, Ingalaterra eta Bilboren arteko hartu-emanak oso estuak ziren, eta handiki askoren seme-alabak Ingalaterrari begira hazita eta hezitza zeuden. Gerrak batzuztat irabazi handiak ekarri zituen, eta horien artean zegoen abertzaleatasunaren sustatzaile Ramon de la Sota. Horri igarri zion EAJk. Baina kolpeko goraldi ekonomikoa bat-batean amaitu zen. «Behaldiria ere kolpekoa izan zen, ikaragarria. Ez hori bakarrik, gerra amaitu aurretik jada 1918ko gripea ere etorri zen, eta hori ere izugarria izan zen».

Hego Euskal Herriaren, hedatzen eta indartzen ari zen abertzaleatasuna, eta, gerrak aurrera egin ahala, izango zuen arrazoirik aliatuen aldeko agertzeko, gero eta gehiago. 1916ko ekainean, Lausanan egin zen Nazionalitateen Hirugarren Konferentzian parte hartu zuen, eta hori deklazio bat onartu zen nazionalitateen autodeterminazio eskubidearen alde. AEBetako presidente Woodrow Wilson ere autodeterminazio eskubidearen alde agertu zen 14 Puntuaren proposamenean. «Wilsonen ikusten zuen ekialdeko Europako abertzaleatasunaren gatazka konpontzeko modua gerraren galtzaileen kontura egitea zela. Autodeterminazio eskubidearen alde jarri zen, baina soilik gerra galdu zuten inperioetan». Gerra ostean sortuko zen Nazioen Sozietatean ere ate-joka ibili zen EAJ, «edo behintzat paradiploiazia moduko bat egiten».



AEBetako presidente Woodrow Wilson 1918an autodeterminazio eskubidearen alde azaldu zen.

Bidegainen arabera, keinu hori erraz koka daiteke «aurrereko hamarkadetatik zetorren aberri handiaren eta aberri txikiaren logikan. Horrela, biak osagarri eginez lortu zuten Euskal Herria bezalako herri txikiak Frantzian integratzea». Eta frantseseste prozesu horretan, zalantzarik gabe Gerra Handia mugarria izan zen. «Frantseseste ez zen orduan hasi, eta ezzen orduan bukatu, baina gerra hura izan zen prozesu horretako gertakari inportanteen».

Hego Euskal Herriaren abertzaleatasunaren gorakadaren urteak izan zirenak Ipar Euskal Herriaren frantsesestearre-

nak izan ziren. «*Eskualduna* astekariak zioen anaia zirela hegoaldekoak, baina anaia une batean etxetik joaten direla, norbaitek ezkontzeko», azaldu du Bidegainen. Gerra hain hurbil, herri txikien ahultasuna ere bide bereetik zihon argudio bihurtu zen. Frantseserako tresna eragin korrontetakoak, dena den, herririk txikienean ere, *Mort pour la France* Frantziaren alde hildako herriko soldaduei egindako oroitarriak dira. «Lotu zuten zure plaza Frantziarekin, zure hilak Frantziarekin». Eta lubakiek lubaki sakon bat zabaldu zuten euskal herritarren artean.

Gizon masa handia, nahiz eta denak ez izan lerrotatuak. Horrek dakarren zikinkeria guztiarekin. Jaten zutena, beren baitatik ateraita. Eta zabor metek euliak eta arratoiak erakartzen zituzten. Eta soldaduak horren erdian bizi ziren. Zomorroz beteak... osasun baldintza deitoragari guztiak marmutxak ekartzen baitituzte. Maurice Genevoixek *Ceux de 14* liburuan adierazten duen bezala, bizi izan zutena animalia batek ere ez zukeen jasanen.

Hortik galdera: nola da posible iraun izana?

Historialari guztiak egin duten galdera da hori. Orduko gizonen gaitasun fisikoei lotua izan daiteke. Lan dorpearen usaia zuten. 1914ko biztanleriaren %60 baserri aldekoa zen. Sendoak ziren, ohituak ez plenitzez. Ikaragarriko ibiltariak ziren. Usu, egunean hoge kilometro egiten zituzten. Gerlak ekarpen hau ere badauka: hamar bat gizonak osatu sekzioaren baitan halako osmosi bat sortzen da. Dependentsia bat. Talde batean zarelarik, zure inguruko arabera jokatzeko duzu. Taldeko bakar batek besteak bereganatzen bazituen erranez «iraun behar dugu», besteek ere irauten zuten. Gainera, hasieran behintzat, sekzioetan herri berekoak zituzten elkartzen, batzuetan auzoak, lehengusuak.

Desagertuei leku berezi bat eman diezu liburuan; horien zain urteak pasatu dituzten senideei...

Kontabilitateaz arduratzen zen erregimentuko aitzindari batek idazten zuen soldadu erailaren heriotza agiria. Bi aletan, bat hilaren herriko udalera bidaltzeko. Ondorioz, auzapezak zituen familiak abisatzen. Baina agiriak ez zeuden aldi gutzit. Norenik gabeko lurrean zauritu soldadu bat etsaiek biltzen zuelarik, adibidez. Etsaiek sendatu eta preso kanpamentura bidal zezakeen. Gurutze Gorrien lana zen informazio horiek bideratzea. Baina hilabeteak pasa zitezkeen familiak informazio hori jaso aitzin. Izan ziren, aldiz, egiazko desagertuak. Obus des-

karga batek xirtxikatuak, adibidez. Eskumuturrean zituzten nortasun plakei esker identifika zitezkeenak, baina ez beti. Hemengo soldadu bat, Lucien Laborde, 1921. urtean aurkitu zuten horrela, 1914. urtean hil zutelarik. Haren amak hainbat agintariri idatzi zien, baita Espainiako erregeari ere. 1921era arte esperantza atxiki zuen.

Zibilen eguneroko bizia ere aipatzen duzu; errefuxiatuak ehunka, bereziki Belgikatik, partikularren etxetan babesa jasotzen zutenak; Miarritzen, herriz, etxe eta hotelak erietxe bilakatuak.

Miarritze erietxe hiri gisa aukeratu zuten, hotel anitz zudelako, bakantzetako hiria zelako. Oro har, zibilek erakutsi elkartasuna izugarria izan zuen.

Baionan, kaserna giroa, portuko eta geltokiko joan-etorriak, soldaduak opor baimenarekin, prostituta...

Baziren soldadu amerikarrak ere, eta horien sosa. Baiona bizi handiko hiria zen, jende anitz bazegoen.


Gizonak frontean zirelarik, emazteek zuten dena egiten, baserriaren nahiz hirian, etxaldeko kanpoko lanak eta beste. Emaztea bere buruaren nagusi jartzeko prozesuan, gerlak ere badi leku berezi bat.

Bai, dudarik gabe. Lan guztietan emazteek hartu zuten gizonaren lekukoa. Gutun banaketan, okindegian eta beste.

Aldiz, baziren gauza batzuk debekatu zituztenak: dantza, adibidez.

Badago anekdota bat horri lotua. Ibardinen, mugaz bestaldeko aterpean, igande zenbaiztutan dantzaldiak antolatzen ziren. Urruñako neskek gizon espainolekin dantza egiten zuten, baita desertore batzuekin ere. Miarritzeko komisario bereziak Hotel du Palaisekoei abisu bat helarazi zien ingeles aitzindari batzuek logeletan tangoa dantzatzeko zutelako.

06 LEHEN MUNDU GERRA 1914-1918



Goian: Kathleen Evans aitaren erretratu eskuan, Ondarroan, 1960an, familiarekin eta Isabelita-ko hiru marinelekin. Eskumatik bigarrena da Jose Artetxe, Isabelita-ko patroia ohi. Eskuman, goian: Miren Artetxe, Jose Artetxeren alaba. Eskuman, behean: Hugh Evans Loiu, aitonen hilarrian; 1960ko irudian, ezkeretik bigarrena da Hugh Evans. EVANS SENDIA / J.F.

AMURIK ABERATSENA

Bizkaiko ontzidiaren galerak
1914-1918

Itsasoko istripuak	Minen kontra talka	Torpedoen eraginez	Guztira	Hildako marinelek
29	6	61	96	68

Hugh Jones kapitainaren azken itsas bidaiak

Abiatu
1918ko urriaren 4an, goizeko hamarretan.

Hondratua
Urriaren 5ean, 03:22an torpedoz eraso zioten urpekarri alemaniarek bot ontziko konboiari.

Gornua aurkitu
Urriaren 9an, eguerdiko hamabietan 'arrantzatu' zuten gorpua Ondarroako 'Isabelita' baporeak Getariatik 5 milia iparraldera.

Itsasoko gerrak gorakada handia ekarri zion Bizkaiko ekonomiari. Baina marinek asko hil ziren. Hugh Jones kapitainaren historia lekuko.

Jon Fernandez

Inork ez zuen espero itsasoko uretan gorpu bat arrantzatzetik. 1918ko urriaren 9an, goizean, antxoia nahian atera zen Ondarroako kaitik *Isabelita* baporea. Antxoia zen arrainik preziatuena, Gerra Handian euskal arrantzaleek Italiara eta Frantziara gehien esportatzen zutena. Baina egun hartan ez zuten antxoarik aurkitu, eta baporeko hamar marinek sabela betetzeko bada ere, kabratan hastea erabaki zuten Jose Artetxe patroiak. Oso aspergarria da kabraren harrapetzea. Lokartzeko adinako nekagarria, amuak noiz ten egingo zain egotea. Oraindik orain, ondarroarrek *kabratan zabilta* esaten diote sofan eserita logurari eutsi ezinik burua zanbuluka dabilkionari. 1918ko urriaren 9an, ordea, ez zuten aspertzeko astirik izan *Isabelita*-ko arrantzaleek. Eguerdiko hamabiak inguru ziren marineletako bat oihuka hasi zenean: «Ene! Zer pisu dago hemen!!!». Aitari etxean behin eta berriz entzutearen poderioz, eszena ikusten egongo balitz bezala kontatzen du gertatutakoa Miren Artetxe 87 urteko ondarroarrak, keinuka: «Amuan trabatu zen, antza denez, gorpua. 'Ene! Ene! Gizona!', oihukatuz zuten. Baporea altxatu zuten, eta segituan igarri zuten kategoriako gizona zela. Urrezko erloju bat zeukan, eta urrezko eratzun bat, H. J. inizialekin». Hugh Jones kapitain galestarra zen, eta hil berri bazen ere, ez ziren han amaitu kapitainaren bidaiak. Soka luzea ekarriko zuten istorio baten hasiera baino ez zen.



Hugh Jones kapitainak eta Ann Jane Jones emazteak elkarri idatzitako azken gutunak. EVANS SENDIA

Getariako kostaldetik bost milia iparraldera aurkitu zuten. Soineko urdin dotorez jantzitako gorpua belarekin tapatu, eta Ondarroako portura eramatea erabaki zuten *Isabelita*-ko patroiak. «Baina kaira iristear zeudela nire aita konturatu zen gorpuari erlojua falta zitzaiola», gogoratu da Artetxeren alaba. Gizona topatu bezala entregatu behar zela eta, baporea portuaren kanpoaldean egon zen denbora batez, erlojua agertu arte. «Arrantzale batek kendu zion. Orduan ere baze-goen beharrezana antza», bota du Artetxek.

Egunak behar izan zituzten ondarrorrek gizon hura zein zen eta zer gertatu zitzaion jakiteko. Gorpua soinean zeramatzan liburuak, txeketa eta paperetan ageri ziren sinadurak eta urrezko eratzunaren inzialak eman zioten pista Britainiar Inperioaren Bilboko kontsulatuari. Ondarroako Kofradiak haren esku laga zituen ikerketa guztiak.

Heathpark bapora britainiarreko kapitaina zen Jones. 1918ko urriaren 5ean, goizeko hamarretan ateratu zen Bilboko portutik, ikatzez beteta, Londres gerrarako hornitzeko. Bost ontzi zihozten konboian: Bilboko R. O. Aniñano konpainiako *Mercedes* zamaontzi zaharra eta Norvegiako bapora bat tartean. Munduak

ez zekien hilabete eskas falta zenik Lehen Mundu Gerra amaitzeko. Ezta Jonesek ere. Baina alemaniarrek mina eta urpekariekin aliatuei eta haien edozein hornitzailei deklaraturako gerra saihesteko, kostaldearen ondo-ondotik egin zuen bidaiari Maryporterantz (Ingalaterra). Azkena irabazteko zela jakin barik idatzi zion azken gutuna bezperan, Bilbotik, Ann Jane Jones emazteari. Eta hark urriaren 7an erantzun zion senarrari Borthetik (Gales). «Espero dut zu ondo egotea, eta bizirik iristea Maryporterara. Oso arduratuta gaude zuegatik, ekaizt handiak dituzuelako itsasoan». Emazteak gutuna idatzi zuenerako bi egun zeramatzan urpean senarraren gorpua. Ez denboralaren ondorioz, urriaren 5eko goizaldean Von Glase-napp kapitainak gidaturako U91 urpekari alemaniarrek torpedoz eraso eta Bilbotik aterako bost ontziak hondoratu zituelako baizik. 26 marinel hil ziren guztira. Lau egun geroago *Isabelita* baporeak Getariatik gertu 49 urteko Jones kapitainaren gorpua aurkitu zuenean haren urrezko erlojuko orratzak 03:22an geratuta zeuden.


Euskal ontzi konpainien nagusitasuna

Zoritxarrez, *Heathpark* bapora britainiarrak gidaturako konboiaren kasua ez zen bakarra izan euskal kostaldean. 1914tik 1918ra bitartean, Bizkaiko ontziak 96 itsasontzi galdu zituen, Juan Carlos Jimenez de Aberasturik Donostiako Untzi Museoa *Itsas Memoria* aldizkarian egindako zenbaketaren arabera. Horietatik 61 urpekari alemaniarrek hondoratu zituzten torpedoz, eta beste sei urpeko minak jota galdu ziren. Alemaniarrek torpedoz hondoratutako Espainiako matrikulako itsasontzien %80 Euskal Herrikoak ziren. Denera, euskal ontzietan zihozten 68 marinel hil ziren Gerra Handian.

Espainia neutral mantendu bazen ere, gerrak sekulako eragina izan zuen Hego Euskal Herrian. Kalte handiak eta negozio ikaragarriak ekarri zituen. Izan ere, Madrilen neutraltasunaren atzekapean, dirutza egiteko aukera ikusi zuten batez ere Bilbo inguruko meatze eta merkataritza ontzien konpainiek. Gerra erdialdean, ontzi britainiarrei ez eze, Britainiar Inperioa hornitzen zuten ontzi guztiei ere gerra deklaratu zien Alemaniak. Jada alferrekoa zen euskal ontziek ezkutu gisa erabiltzen zuten Espainiako bandera handia: herrialde neutralen ikurrek ez zuten gehiago igarobaimen seguru bezala balio. Hala ere, Bilboko enpresari handiek ez zuten amore eman, arriskuak handituta areagotu egin zirelako irabaziak ere. Ingalaterrara zama bidaltzeagatik kobratzen zuten prezioa %1.700 igo zen 1917an.



Ramon de la Sota, euskal enpresari boteretsuena.



Ontzi ingelesak, minak arrantzaten. THE ILLUSTRATED LONDON NEWS

Urrezko negozioa zen, arantzaz betetako izan arren. Gerra hasi zenetik, hau da, 1914ko uztailetik egin zuten gora irabaziek euskal konpainietan, bereziki Bizkaian. Gerran zeuden herrialdeek armadara bideratu zituzten beren itsasontzi gehienak, eta itsas merkataritzarako ontzi neutralak behar ziren, aliatuak erregaiz eta janariz hornitzeko. Lehenagotik ere Bilboko meatzeetatik Ingalaterrara martxan zen merkataritza ibilbidea indartu egin zen. Loraldi izugarria izan zuten lau urtetan ontzi konpainiek: 1917an eta 1918an, esaterako, hamahiru ontzi konpainia berri sortu ziren Bizkaian, nahiz eta batzuek Gipuzkoan helbideratu zuten egoitza, presio fiskala txikiagoa zelako. Versaillesko Bakea sinatu zuteneko, euskal merkataritza ontzidiak Espainiako ontzidi osoaren %70 hartzen zuen.

Gerraren bizkar hazitako euskal ontzi konpainien goraldi ikaragarriari esker, nabarmen indartu zen Gipuzkoako eta bereziki Bizkaiko ekonomia. Garai horretan sortu ziren, adibidez, Banca Urquijo (1918) eta Banco Central (1919). «Espainiako Estatuan euskal finantza-kapitalaren nagusitasuna ekarri zuen», Ricard de Vargas Golars historialari katalanak Añamendi Entziklopedian

azpimarratu duenez. Lehen Mundu Gerraren hauspoarekin indartu zen baita ere Bizkaiko Labe Garaien produktioa, hiru txandako lanaldiak ezarri: gerrako azken bi urteetan 150 milioi pezetako irabaziak izatera iritsi ziren. Gipuzkoako konpainia metalurgikoak eta paperaren industria ere orduantxe indartu ziren. Aresti, Artetxe, Gandarias eta Urgoitia enpresariak sortutako Papeleria Española Espainiako merkatuaren jaun eta jabe egin zen gerrari esker. Kintal bat paper saltzeko prezioa 38 pezetatik 110 pezetara garestitu zen gerra urteetan.

Antxoa esportazioen loraldia

Bizkaiko ekonomiaren ufadak euskal abertzaletasunaren —EAJren— goraldi politikoa eragin zuen. Gerra Handiaren abaroen Euskal Herriko eta Espainiako dirutzarik handiena egin zuena, hain zuzen, jeltzale bat izan zen. Castro Urdialesen jaioa izanagatik, abertzaletasuna besarkatu zuen Ramon de la Sota enpresariak. Ontziola, meatzaritza eta itsas merkataritza negozioak izan zituen Sotak. Besteak beste, Bilboko Euskalduna ontziolen sortzaileetako bat izan zen —gerra garaian asko hazi zen ontziolen produktioa—, eta Eduardo Aznar lehengusuarren sortutako Sota y Aznar ontzi enpresa Londresen ikatz eta burdina hornitzaile nagusietako bat bilakatu zen. Hainbeste ze, Sotak Alfonsito XIII.a Espainiako erregeak eskainitako noblezia titulu bat ukatu ostean, 1921ean Erresuma Batuko Gobernuak Britainiar Inperioko Ordenako jaun komandante izendatu zuen. Sir Ramon de la Sota izan zen aurrerantzean.

Urpeko gerraren kolpe gogorak jaso zituen Sotak halarere. Lau urtean hamasei ontzi galdu zituen, Espainiako merkataritza ontzien hondoratzen %18. Baina irabazi izugarriak izan zituen gerran eta gerra ostean, penintsulako ontzi konpainia nagusia eta kontinenteko garrantzitsuenetako bat bihurtzeraino. 1919an, hamasei ontzi zituen Sota y Aznarrek; 1922an, berriz, berrogei. 1914tik 1918ra irabaziak %1.300 inguru hazi zitzaizkion enpresari jeltzaleari. Gerrako lehen urtean, 2,5 milioi pezetako irabazi zituen; azken urtean, ostera, 35 milioi pezetako. Enric Garcia Bartelonako Untzi Museoko historialariaren arabera, esanguratsua da 1916az geroztik Sota y Aznar enpresak urteko memoriak publikatzeari utzi ziola, «dudarik barik, bere irabazi ikaragarriak ezkutatzeako asmoarekin».

Ez Bizkaian beste, baina Gipuzkoako kostaldean ere onura ekonomikoaren urteak izan ziren gerra urteak. «Arrain gazituen esportazioak izugarri hazi ziren», Ernesto Lopez EHUko historialari ekonomikoaren berbetan. Alemaniako urpekarien blokearen ondorioz, euskal arrantzaleak ezin ziren kostaldetik asko urrundu arrantza egiteko. Dena dela, garai hartako baliabide teknikoek ere oraindik ez zioten ahalbidetzen urrutiko kale-etara joaterik. Alde horretatik, beraz, ez zen handia izan arrantza jarduerari eragindako kaltea. Euskal uretan harapatutako antxoa bilakatu zen aberastasun iturri nagusia, Italiara eta bereziki Frantziara egindako salmentek nabarmen egin zituelako gora. Gerran buru-belarri sartuta zeuden herrialdeetan arrantzontziak eta arrantzaleak gerrara jarriak zeuden, eta atzerititik jasotzen zuten janari hornidura. Itsasoko garraio arriskutsua saihestuz, tren bidez esportatzen zuten arrantzale gipuzkoarrek, Irundik abiatuta. Garai hartan hasi ziren euskaldunak antxoa kontserbak poteetan sartzen, xerrak oliotan ekoizten. Gerra baino lehen antxoak osorik gaituta bidaltzen zituzten Italiara, han landu zituzten.

'Post mortem' bidaiak

Ondarroarrak ziren antxoa kontserbetan trebeenetakoak euskal kostaldean, italiar enpresari dezenteak ireki baitzituzten bertan kontserba fabrikak. Gerra Handia amaitu ostean, 1919ko ekainean James Innes Bilboko kontsulorde britainiarra Ondarroara joan zenean antxoa sasoi beteetan zeuden *Isabelita* baporeko arrantzaleak, baina urtebete lehenago itota aurkitutako gizonaren omenezko kofradiako ekitaldira joateko tartea hartu zuten. *Isabelita*-ko hamar arrantzaleak ziren, hain zuzen, ekitaldiko protagonistak. Salbatzaileak.

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

08 LEHEN MUNDU GERRA 1914-1918

(Aurreko orrialdetik dator)

Esker oneko berbak izan zituen kontsulordeak. Baina ez berbak bakarrik. Batetik, Hugh Jones kapitainaren alargunak bidalitako opari bat eman zion kofradiari: markoan ipinitako kapitainaren erretratu handia. Bestetik, kontsulatuak diruz ordaindu zien *Isabelita*-ko marinelei, urtebete lehenago egindako erreskateagatik. «Nire aita patroia zenez, pixka bat gehiago eman zioten. Ez dakit zenbat mila pezeta ziren. Diru asko ordurako», gogoan du Artetxek. «Gure aitak beti esaten zuen: 'Hura baino amu aberatsagorik ez dut inoiz ezagutu'».

Bizkaiko 96 itsasontzi hondoratu ziren gerran, gehienak urperkari alemaniarrek torpedoz erasota

1919ko omenaldi ekitaldiarekin, ordea, ez zuen betiko atsedena bakean hartu Jones kapitainaren gorpua. *Post mortem* bidaia bi zituen oraindik egiteko. Anglikanoa zela eta, Bilboko kontsul britainiarrek paperak egin zituen 1925eko udan gorpua Ondarroatik Bilboko Britainiarren Hilerrira eramateko. Hiri-

buaruaren erdialdean zegoen hilerrira anglikanoa 1775az geroztik. Baina Ibaizabalen ondoko lurpean ere ez zuen luzarorako atsedetik topatu. 1929an Bilbotik Loiura lekualdatu zuten osorik hilerrira. Harrezkero hantxe dago Hugh Jones kapitain galestarren hilerrira.

Jones kapitainaren arrastoan

Hain zuzen, hilarri haren bila hasi zituzten udako orrarak 1960an Jones kapitainaren alaba Kathleen Evans eta familiak. Ingalaterrako Woodville herritik Vigora itsasoz egin zuten bidaia, eta handik autoz Ondarroara arte. Aitonaren izena jaso zuen Hugh Evans bilobak gogoan iltzatua du uda hura. «Oso triste egon zen ama. Familiako beste inor ez zen lehenago Euskal Herrira joan aitonaren hilarria bisitatzera», azaldu du telefonoz 71 urteko gizonak. Amona Ann Jane Jones alargun eta diru sarrerarik barik geratu zela eta, ez zen inoiz gai izan senarraren hilarria ikustera joateko. Baina bizi artean aitaren arrastoari jarraitzeko eskatu zien alabei, eta gazteenak 1960ko udan bete zuen amaren nahia.

Loiun hilarria bisitatu ostean, Ondarroara joan ziren, 42 urte geroago *Isabelita*-ko marinelen bat ezagutzeko esperantzarekin. Eta bete zuten ametsa. Jones kapitainaren gorpua erreskatatu zutenetako hiru bizi ziren oraindik herrian: 69 urteko Simeon Etxano, 78 urteko Mauro Bereikua eta patroia, 73 urteko Jose Artetxe. Gaztetan Ameriketara pilotari ibilitako Luis Anakabe ondarroarrak egin zituen itzultzaile lanak. Bazkari bat egin zuten denek elkarrekin, eta argazki go-goangarria atera zuten Jones kapitainaren erretratuarekin batera Plazagainean. Izan ere, ondoan dagoen Kofradia Zaharrean arrain salmenta egiten zen bolatokiko hama nagusian jarraitzen zuen kapitain galestarren erretratuak 1919. urtetik.

Egun hartan ezagutu zuten elkar Miren Artetxek eta Hugh Evansek. Orduan 33 urte zituen Artetxek, eta 17 Evansek. Bi familiak urteetan idatzi zizkioten gutunak elkarri Gabonetan eta data seinalatuetan. Gainera, aurreago ere elkar ikusi zuten gehiagotan. Evans familiak ahal izan duen guztietan egin du joan-etorria Euskal Herrira, azkena orain dela zortzi urte.

Jones kapitainaren alaba Kathleen Evans eta Roland Evans senarra 1990ean, urrezko ezteietan, berriro etorri ziren Ondarroara eta Loiuko hilerrira. Hugh Evans biloba, berriz, 1998an etorri zen bigarren, emaztearekin. Eta hirugarren eta azken bidaia 2006an egin zuen. «Emaz-

BATXI, GERRA HANDIKO LEKUKO ETA BIKTIMA

Iragarritako heriotza baten kronika balitz bezala idatzi zuen bere egunerokoan 1915eko apirilaren 24an, Irlandako itsasotik: «Beti gagoz dardaganian noiz joko ete gaituben mina edo torpedoren batek, baña orratinon eiltzen gara gaueko zortziretan Island of Man deritzon ugartera. [...] Emendik ondiño 100 millako bidia

dago Ardrossan'era. Guztijok gagoz atzo baño piskat alayago, itxaso ontan ur loiloyak dagozalako ta uste dogu or loyan itxaspekuak ezterala ibilliko eurak nahi daben lez». Bederatzi hilabetera, 1916ko urtarrilaren 16an hil zen Juan Bautista Bilbao *Batxi* bere itsasontziak mina baten kontra jo ostean. Lezama y Companiako *Bayo* ontzian zihoan, eta Frantziako Palicetik 40 miliara hondoratu zen 28 urteko euskal idazle eta kazetaria.

Iñigo Aranbarrak jaso zuen Batxiren ibilbidea *Bidegileak* bilduman. 1887an jaio zen marinel eta idazlea, Arratzun (Bizkaia), eta 12 urte bete zituenetik itsasoa lan egin zuen. Batez ere kronikagilea izan zen, *Euzkadi* eta *Napartarra* egunkari abertzaleetan. Bi kazetek eman zuten haren heriotzaren berri hurrengo egunetako azalean.

Sota y Aznar konpainian lan egin zuen, eta gerran zeuden herrialdeetako portuetatik idatzi zituen kronikak, «historia konkretuak eta giza dramaren indarra agertuz», Aranbarriren esanetan. Ez zuen egundo libururik plazaratu, baina Susak argitaratu zituen kronika haietako asko *Hau mundu arrano hau* liburuan. Heriotzak kamainan irakurtzen edo idazten harrapatu zela uste du Aranbarririk: «Hala egoten omen zen egunero goizeko seietatik bederatzia arte».



tea hil berri zitzaidan, eta alabarekin batera joan nintzen gurtzeruan Bilbora. Aitonaren hilarria bisitatu genuen; ez ginen Ondarroara joan». Urteen joanarekin, harremana galduta dute evanstarrek ondarroarrek.



Aleman batek neri esana, biyok geudela kafian: «Kaiser agintzen ikusiko da laister Paris'ko kortian». Zepelinakin aidetik eta sumarinuak ur-pian, disgusto asko eman digute jun daneko lau urtian.

Txirrita 1918

kostaldean egindako triskantzak nabarmendu zituen. Aurelio Arteta margolari bilbotarrak ere urperkariak hondoratutako euskal marinelen omenezko olio pintura bat egin zuen 1932an. Sota y Aznar konpainiako *Algorta* baporearen bi naufragorik irudikatu zituen. Itsaspeko alemaniar

'Inoiz ez ahaztua'

Hego Euskal Herrira Gerra Handiaren atzaparkadarik ez zela iritsi uste dute askok ehun urte igaro eta gero, baina iritsi iritsi ziren. Madrilen neutraltasunak eta Europako Iparraldeko itsasoa bezalako itsas batailarik egon ez izanak lagundu du memoria galtzeko orduan. Jutlandiako izan zen Lehen Mundu Gerrako itsas batailarik handiena. Vicente Blasco Ibañez idazle valentziarrak *Crónica de la Guerra Europea* (Esfera) liburuan zehatz-mehatz jaso zuen: Danimarkako kostaldetik gertu egin zuten borroka bi aldeetako ontzidiek, eta guztira ia 9.000 lagun hil ziren. Euskal kostaldean ez zen horrelako batailarik izan, baina Europako beste toki batzuetan bezala, hemen ere uretatik jaurtitako bonbardaketak egon ziren. Urperkari alemaniarrek, esate baterako, Bokaleko altzairutegia bonbardatu zuten. Lapurdiko kostaldean.

36ko gerrako eta Bigarren Mundu Gerrako sarraskiek memoria kolektiboaren zoko batera botatu zuten Gerra Handiaren arrastoa. Hala ere, orduko desmasiak betikotuta geratu ziren hainbat kultur adierazpenetan. Txirritak 1918an idatzitako *Bertso berriak Txirritak jarriyak* bertso paperetan, adibidez, itsaspeko minen eta urperkari alemaniarrek euskal



Aurelio Artetaren *Naufragos* olio pintura (1932).

batek torpedoz eraso zuen ontzia 1917ko urtarrilean, eta marineletako bi hotzak hil ziren Bresteko kostaldean (Bretainian).


Nork bere erara du gogoan Gerra Handia. Jose Artetxek *amurik aberatsena* zuen gogoan. Evans familiarentzat ere urrezkoa izan zen senidearen gorpua urpetik berreskuratutako amua, eta euskal ekonomia-entzatz ere aberasgarria izan zen gerrako negozioaren amuak kosk egitea, mina ere jasan arren. Baina Jones kapitainaren Loiuko hilarriak *Inoiz ez ahaztua* badio ere, memoria galtzea ez da zaila. Hugh Evansi «sinestezina» iruditutako telefonoz enteratu denean aitonaren erretratu 2000ko abenduan desagertu zela Ondarroan, Kofradia Zaharra sute batek desegin zuenean. «Sinestezina. Gauza bera gertatu zen Borthen. 1990ean sute batek txikitu zuen udaltxea, eta aitonaren eta Lehen Mundu Gerran hildako herriko gainontzeko marinelen erretratuak kiskali ziren». Itsasoak itotako oiroimena, suak bi aldiz erraustua. Memoria, zorionez, ez da oraindik guztiz erre.

Eibarko armagintzaren urrezko aroa



Arma industriaren salmentak

Arma kopurua (1981-1935)



Arma enpresak


Guztira 58

Langileak 2.104

Enpresa handien langileak

ITURRIA: IGOR GOÑI MENDIZABAL

BERRARMATU, BERRASMATU



Star konpainia, Eibarren, 1920an. EIBARKO ARMAGINTZA MUSEOA

Gernikako eta bereziki Eibarko armagintzak inoizko ekoizpenik handiena lortu zuen Gerra Handian. Bakea iristean, hondoratu egin zen: bizikletak eta josteko makinak egiteari ekin zioten orduan.

Jon Fernandez

Aberastasuna eta krisia. Bata zein bestea eragin ditzakete gudeak, eta Lehen Mundu Gerra biak ekarri zizkion Euskal Herriko herri armaginari. Eibarko ekonomiak XX. mendeko urrezko aroa izan zuen 1914tik 1918ra, eta urritasun eta krisi aro gogorra gerra ostean. Gerra Handiak egin zuen Eibar ezagun nazioartean, eta ospe horrek eman zion *armagin* izena: Gabilondo y Cia-ren Ruby pistola mundu osoan egin zen ezagun, eta *Eibar pistola* goitizena jaso zuen berehala. Esperanza y Unceta konpainia eibartarrak 1913an Gernika-Lumon irekitako armategiaren Astra pistola laburrek ere entzute handia lortu zuten aliatuen artean. Baina 1918ko azaroaren 11n hankaz gora jarri zen dena: tren bagoi batean, Frantzia iparraldeko Compiègne basoan, armistizioa sinatu zuten aliatuek eta Alemaniak. Gerra *nahi baino lehenago* amaitu zen, lau urtez produkzioak aparra bezain bizkor gora egin ostean, fabriketako biltegiak errebolberrez eta pistolaz beteta zeuzkaten Eibarko enpresa jabeentzat. Irtenbiderik bako arma stock erraldoia birziklatu beharrez, inoizko moldaketa industrial handiena egin zuen Eibarrek. Arma egiten zituzten enpresa asko beste produktu batzuk ekoizten hasi ziren gerra ostean: bizikletak (Orbea, BH eta GAC), josteko makinak (Alfa) eta bulegoetako materialak (El Casco), besteak beste.

Euskal armagintza, hala ere, ez zen Lehen Mundu Gerrarekin sortu. 1482koa da Eibarko arma lantegi bati buruzko lehen albiste idatzia. Debabarreneko armagintza tradizioa XV. mendean sortu zen, Espainiako koroak So-

raluzen armen errege fabrika sortu zuenean. Aldi berean, *Placencia de las Armas* izenaz bataiatu zuen herria. Espainiako arma guztiak errege fabrika horretatik pasatzen ziren, aztertu eta gaitasun agiria lortzeko.

Inguruetan arma fabrika txikiak sortu ziren, bereziki Eibarren, eta XIX. mende amaierarako sekulako indarra eta ospea lortu zuten eibartarrak: produkzioaren %80 nazioartera esportatzen zuten. AEBetako, Alemaniako eta Belgikako pistola arinen bertsiio merkeagoak eta kalitate eskasagoak egiten espezializatu ziren. Espioitza indutrialaren urteak izan ziren. Igor Goñi Mendizabal EHUko Ekonomiaren Historiako irakasleak azaldu du, esaterako, 1901ean Eibarko alkatea Liejara joan zela armagin belgikar nagusien metodoak zeintzuk ziren jakitera. Belgikarrak ziren eibartarren kompetentzia zuzena.

1914an 11.000 biztanlera iristen ez zen herrian, 2.000tik gora lagunek egiten zuten lan armagintzan, eta urtebete lehenago, Eibarko Arma Eskola sortu zuten. 1914ko udan hasitako Gerra Handiak saltoa emateko momentu ezin hobean harrapatu zuen Eibar, ordurako armagintza baitzen herriko bizimoduaren motorra.

Baina gerrako lehen urtea oso txarra izan zen. Aliatuen eta potentzia zentralen arteko lehen borrokek nazioarteko merkataritza kontratu ugari eten zituzten, eta Eibarren ehunka behargin langabezia geratu ziren. Udalak jantoki sozialak ireki eta obra publikoak egin behar izan zituen—Eibar eta Markina arteko errepidearen eraikuntza—langabeei sabela eta patrikak betetzeko.

Ordura arte, pistola arinak soilik armadetako ofizialek erabiltzen zituzten, baina gerra lubakietako aurrez aurreko borrokan jokatzeko zenez, soldadu guztiak hasi ziren errebolbera erabiltzen. Nazioarteko blokeoak gaindituta, 1915 hasieran hasi zen hauspotzen euskal armagintza. Frantziari hilean Ruby modeloko 50.000 pistola saltzeko kontratua sinatu zuen Gabilondo y Cia eibartarrak. Konpainia ez zen gai horrenbeste produzitzeko, eta, Elgoibarren lantegi berri bat zabalteaz gain, Eibarko arma enpresa txikiak azpikontratatu zituen. Erresuma Batuari, Italiari eta Errumaniari ere saldu zizkieten pistolak euskal armaginek, eta historiako produkzioirik handiena iritsi ziren: lau urtean, bi milioi pistola inguru saldu zizkieten aliatuei.

Marka historikoen sorrera

Industriaren gorakadak langile eta gizarte kontzientzia piztu zuen eibartarren, hamarkada luzez herriaren izaeran txertatu dena. Horren adibide da 1913ko greba. Hedatzeko asmoz, Esperanza y Unceta Gernikan ireki zuen arma fabrika—gerora Astra izango zena—, eta ehun langile eibartar eraman zituen bertara lanera. Desadostasunak zirela medio, langileek greba egin zuten, eta sei ez beste guztiak enpresa utzi zuten, eta Eibarrera itzuli ziren. Gerra Handia piztu zenerako, ordea, konpainiak fabrika martxan jarzteko lortu zuen, behargin gerrak kontratatuta.

1918an gerra amaitu zenean, hondoratu egin zen euskal armagintza, eta bereziki Eibar. Arma eskaria erori egin zen, AEBek muga zergak jarri zizkieten atzerriko armeei, 1920an Madrilera arma salmenta mugatu zuen segurtasun arazoengatik... eta, bitartean, biltegiak pistolaz beteta zeuzkaten fabrikek, saldu ezinik. Egon ziren 1936ko gerrara bitartean ekaizari aurre egitea lortu zuten marka batzuk: Unceta y Cia Espainiako armadaren hornitzaile bihurtu zen, eta Star Bonifacio Echeverria Guardia Zibilara. 1920-1930eko hamarkadetan pistolak Txinara esportatzen ere asmatu zuten Eibarko hainbat konpainiak. Nolanahi ere, armagintzan ez zegoen denentzako tokirik, eta iraupen ariketa eredugarria egin zuten konpainia askok. Alfa kooperatiba josteko makinak egiten hasi zen; bizikletak egiten Orbea Hermanos, Beistegi Hermano (BH) eta Garate, Anitua y Cia (GAC); eta bulegoetako materiala Olave, Solozabal y Cia (El Casco). Irudimen eta auzardia handiz, armagintzako teknologia erabili zuten beste sektore batzuetan arrakastaz sartzeko.

Lau urtean, Eibarko konpainiek bi milioi pistola inguru saldu zizkieten herrialde aliatuei

10 LEHEN MUNDU GERRA 1914-1918



Txoke tropak gas laino artean aurrera egiten, Otto Dix margolariak Gerla Handiak egin zuen marrazki sortan.



Marko marrazkilaria Les Godillots komiki saileko protagonistak. BAMBOO



Gaseatuak John Singer Sargentek 1919ko martxoan amaitu zuen margotzen.

PELADURAK AGERIAN

Gerla Handiak peladuraz, zauriz bete zituen garai hartako kronikak, paisaiak, bizitzak... baita adierazpen askatasuna, literatura eta arte mundua ere. Orduko zentsurak gerraren aurpegirik beltzena ezkutatu zuen. Gerora joan da agertzen.

Amagoia Iban

Bertze kazetak irakurtzen dituzuenek edo aldekoen eskuetan ikusten zabalduak, ohartu zireztea, noiztenka han hemenka badituztela huts batzu, peladura zuri batzu, batzutan ttipichago, bertzetan hedatuchago, ilez buluzi hasko [sic] pelatuen iduriko? Ez padakizue zer diren hek, huna. Ez gira haizu kazetariak gerlakotz berri guzien emaiterat, batzu gezurak direlakotz, edo bederen ez egia segurak; bertze batzujendearen izitzeko litazkelako hobe bihotzaren altchatzeko baino». 1914ko urriaren 30eko *Eskualduna* kazeta, gerla hasi berriarekin ezarritako zentsuraren alde. Testuaren izenburua: *Peladurak*. Zauriak.

Agintarien botere jokoak, obusak, gasak, tropez eta lohiz betetako sator zuloak... paisaia politiko, geografiko eta humanoak zauritzen hasiak ziren, izan ere, 1918ra arte iraungo zuen Gerla Handi hura zela medio. Peladura Handia ezarria zen. «Behar da obeditu ichil ichila, edo kazeta osorik debeka lezazkezute», *Eskualduna*-k. Gerraren aurpegirik ilunena ezkutatu behar zen, eta aurpegi hura zuzenean ikusi — eta erakutsi — zuten askok ez zuten

hartaz hitz egin nahi. Hala zioen Joan Elizalde *Zerbitzari* apezak (1883-1963) Verdungo batailaz, baina berak ez zion idazteari utzi inoiz. Frontetik hamaika kronika bidali zuen; guda bukatu ostean, *Berrogoita Hamazazpigarrena Gerlan* sortako aleak argitaratzeari ekin zion 1936ko abenduaren 25ean, hamabostean behin. *Eskualduna*-n beti. «Obusa erauntsi latzgarrien gatik, aire pozoindatuen gatik, jada han eta hemen usteltzen ari zirenen usain ezin jasanaren gatik, gose-egarrien gatik, ororen gatik, ez ginuen bururik gibelat itzuli. Berrogoita Hamazazpigarreneko gizonak, Verduneko aldia bururatua gi-nuela erran zaukutelarik baizik. Lau ehun eta berrogoi hil han utzirik, joan ginen pausurat». Zauri Handia haragi bizitan Elizalde. Eta gerraren mintzaira: *Minerwefer, flammenwerfer, crapuillots, Franzosen Kaput...*

Patri Urkizuk liburu batean bildu zuen Elizalderen sorta, 1995ean: *LVII.a gerlan* (Alberdania). Haren oinordekoa da, hein batean, Xabier Montoiaren *Hezur gabeko hilak* (Susa, 1999) nobela. «Elizalderena oso liburu interesgarria iruditu zitzaidan, eta bertan irakurritakoaz hausnarrean sortu zitzaidan nobela». Elizalderen kontaketa estilotik abiatuta, gerraren izugarrikerien galeria propioa, gordina osatu zuen Montoiak. «Gauza asko irentsi behar izan nuen hura idazteko. Batez ere, gerla hari buruzko lekukotasunak, han egondako idazle euskaldunek idatziak. Hortaz, Iparraldeko aldizkariak arakatu nituen, baita Baionako liburu dendetan erdaraz aurkitutako historia liburuak ere, batez ere lubakien eta soldaduen bizi-moduaren berri ematen zutenak».

Antologia bat

Euskal idazleen Gerla Handiari buruzko lanak. Ez dira gutxi. Horren adierazgarri, Patri Urkizu oraintxe prestatzen ari den testu antologia. 50 egile ingururen kronika, gutun, nobela, poesia, bertso, antzerki... lanekin. Kronista eta gutun asko bildu ditu; *Eskualduna*-n edota *Euzkadi* egunkarian idatzi zuten gehienek. Literatura arloan, Elizalderen testuak jaso gabe utzi ezin Urkizuk. «Ez da baka-

rra, ordea. Jean Barbier aipatu behar da, esaterako. 1926an eta 1929an idatzi zituen *Piarres I* eta *Piarres II*, hurrenez hurren, eta bigarrenago sartua da gerran». Barbieren protagonistak kristau tradizio zalea da, eta desertatzeko aukerari uko eginez doa frontera. Ezin gerraren zikinari erabat ihes egin, hala ere: «Lohi higuina, hastiala, okaztagarria, haxoinetarik eta galtzeri goiti, gerruntzean, bulharretan barna, lephoraino igaiten zena, hotz-hotza eta ixil-ixila, alimaleko apho itsusi bat bezala! Ez zen, lohiarentzat, ez gazterik, ez zaharrik, ez aintzindaririk. Oro bardin lohi zikinaren aintzinean, herioaren aintzinean bezala; denak bardin iretsi nahi ukan balitu bezala heldu baitzen bethi, bethi, zauri itsusiena baino itsusiagoa».

Pierre Apeheixen *Guillaume II* (1929) pastorala ere Lehen Mundu Gerraz mintzo da. Eta Pierre Bordazarren

«**Joan Elizalde ezinbestekoa da Gerla Handiak idatzi dutenen artean, baina ez da bakarra»**

PATRI URKIZU
Idazle eta ikerlaria

Txikito Kanbo (1967) ere bai. «Piarres Lafitteren *Egiako argia* antzezlanaren hor dago. Desertoreari buruz da», nabarmendu du Urkizuk. Lafitteren azken mezua garbia da: gerran itsutuko da protagonista, eta obra bukaeran «Jainkoaren Argia» ikusiko du. Beste zauri bat: gerra umezurtzena. Etienne Decrepren *Semetxia* (1925) opera libretoan.

«Hendaian-eta umezurtz geratutakoak aldameneko herrietako base-rietakoek jasotzen zituzten: Lezon,

Irunen, Hondarribian, Oiartzunen... etxekotzat hartu zituzten. Hori kontatzen du *Semetxia*-ko».

Operako kantuetatik bertsoetara. 1914an hasitako triskantzari jarritako bertsoak ere ugari baitira. Matxin Irabolak idatzitako saila gogoangarria da: «Ene izpirituan hasten naiz pentsatzen / Gizonaren bizia zer ote zitaken / Egia ez da errex zuten esplikatzin / Aintzen justizia ez dut ezagutzen / Gu penaz higatzen / Elgarren xahutzen / Bat bertzea hiltzen / Odola ixurtzen / Aberatsak urrundik irriz asetzen (bis)».



Txirritaren bertsoak dira gehien zabalduak, hala ere. Frantsesen alde kantatu zuen, Petain goratuz eta alemanak gutxietsiz. Jose Ramon Tabernak kontra egin zion. Besteak beste, gogoeta honekin: «Franko inglesak Alemania / lur-pera nahi dute bota; / berak ezin ta yankiak diruz / egin diote burruka, / hoiek amerikanuen mendian / jarri digute Europā».

Kultur fronteak

Euskal Herritik kanpo ere, fronteak sortzailez hornitu ziren. Gabrielle d'Annunzio italiarra boluntario joan zen gerrara, eta hegazkin pilotu izan zen begi bat itsutu zitzaion arte. Thomas Mannek, berriz, *Mendi magikoa*-ren idazketa eten eta gerra «aleman moralaren benetako adierazpena» zela aldarrikatu zuen.

Gerra hasi bezain pronto, Alemaniak eta Austria-Hungariak gerra prentsarako bulegoa osatu zuten, Hugo von Hofmannsthal, Robert Musil, Egon Schiele, Franz Werfel, Stefan Zweig eta beste hainbatekin. Horren berri jakin bezain pronto, Erresuma Batuko bere Gerra Propaganda Bulegoa sortu zuen. William Archer, Gilbert K. Chesterton, Arthur Conan Doyle, Thomas Hardy, Rudyard Kipling eta H. G. Wells kolaboratzaile izan zituzten, besteak beste.

Bada euskarara ekarri eta Londresen 1916an argitaratutako liburua bat: *Raemaekers olandi'ar margolari antzetsu erostiaren marku-ostoa*. Louis Raemaekers artista herbeheretararen garai hartako lanak biltzen ditu. Alemanen kontrako propaganda lan handia egin zuen Raemaekers bere irudien bitartez.

Propagandari bizkar eman eta bakezale agertu ziren apurrek, berriz, kritika latzak jasan behar izan zituzten. Kritikak baino gehiago jaso zuen Jean Jaures politikari, historialari eta filosofo sozialista frantsesak. Bazetorren gerra geldiarazten saiatu zen grebaren eta nazioarteko sozialisten laguntza bitartez. Parisen hil zuten. Gerla Handia hasi baino hiru egun lehenago. Maurice Barres,



Andre Soares eta, batez ere, Romain Rolland nabarmendu ziren gero herrialde aliatuetan gerraren aurkako mezuak zabaltzen. Alemanian, hiru intelektualek bakarrik —tartean Albert Einstein— sinatu zuten Georg Friedrich Nicolaiaren *Europarrentzako manifestua*. Gerrak galtzaileak besterik ez zuela izango nabarmentzen zuen agiri hark. Stefan Zweig hasiera bateko jarrera gerrazalea alboratzen hasi zen pixkanaka.

Gerra ostekoak

Gerra bukatu eta gerora ere, antimilitarismoaren aurka presioak ez ziren desagertu. Stanley Kubricken *Paths of Glory* filma da horren adibide garbia. Humphrey Cobben nobela moldatu, eta 1957an estreinatu zuen. Sinopsia: gain bat hartzen saiatu baina lortu ez duen errejimentu bat zigortzeko, bertako hiru soldadu epaitzea eta exekutatzera erabakiko dute ofizial frantses batzuek, tropen zentzagarri. Europan estreinatu orduko sortu zuen polemika filmak. Bruselan erakutsi zuten lehenik, eta filma ez emateko presioak hasi ziren. Frantzia, 1975ean estreinatu zuten. Espainian, 1986an.

Bibliografia

Gerla Handiak euskarazko testuetan utzitako neurria hartzeko, hona hemen lan hautatu batzuk:

SAIAKERA

■ *Gerla Handia, muga sakona. Lehen Gerla Mundialaren (1914-1918) hastapenak 'Eskualduna' eta 'Euzkadi' aldizkarietan*. Eneko Bidegain (Utriusque Vasconiae, 2009).

MEMORIAK

■ *L VII.a gerran*. Joan Elizalde Zerbitzari (Alberdania, 1995). Patri Urkizuk prestatutako edizioa. Interneten, Klasikoan Gordailuan dago osorik: <http://klasikoak.armiarma.com/>

KRONIKAK

■ *14eko Gerla Handia*. Jean Saint-Pierre Anxuberra, (Ibaizabal, 1998). Euskal Editoreen Elkartearen Klasikoak bilduman, Piarres Xarritonek prestatutako edizioa. *Eskualduna*-n emandako kronikak dira. Interneten, Klasikoan Gordailuan dago osorik.

■ *Guda Nagusia 1914-1918*. Ebaristo Bustinza Kirikiño (Labayru, 1990). *Euzkadi*-n argitaratutako testuen bilduma.

LITERATURA

■ *Piarres II*. Jean Barbier (Ibaizabal, 1996). Barbierrek 1926an argitaratu zuen *Piarres* nobelaren lehen zatia, 1929an bigarrena. Euskal Editoreen Elkartearen Klasikoak bilduman plazaratuak dituzte biak.

■ *Hezugabeko hilak*. Xabier Montoia (Susa, 1999). Eleberria.

■ *Egiatzko argia* (Piarres Lafitte, 1933). Antzezlanak. Interneten eskuragai dago, hemen: <http://antzerti.armiarma.com/antz1403.htm>

■ *Semetxia*. Etienne Decrept (1925). Opera baterako libretoa da, gerlako soldadu euskaldunak ditu protagonista. Interneten dago eskuragai osorik, Klasikoan Gordailuan.

BESTELAKOAK

■ *Raemaekers olandi'ar margolari antzetsu erostiaren marku-ostoa* (1916, National Press Agency Limited). Koldo Mitxelela kulturuneko liburutegi birtualean eskuragai dago.



Stanley Kubricken *Paths of Glory* filmaren kartela.

«Garbi dago Gerla Handia oraindik ere pisua dela. Bigarren Gerla tratatua izan da ikuspuntu tragiko eta historikotik, baina irri ere egin da harekin. Lehen Gerlarekin, aldiz, sekula ez. Gaur ere zaila da irri egitea, arinago hartzea». Marko Armospach marrazkilariren iritzia da. Frantziako ikastetxeetan Gerla Handiari buruzko hitzaldiak ematen ari da, Les Godillots saileko bere komikiak abiapuntu hartuta. 2009an eman zuen saileko lehen albuma, Olier gidoiari zuela, *Le plateau du croquemitaine* izenburupean. Iaz, saileko bigarren lana eman zuten: *L'oreille coupée* (Belarri moztua).

«Lehen Gerla kontatzeko, funts historikoetara, iturri ofizialetara jo nuen, garai hartako egunkari eta bideoetara. Agiri haiek guztiak zentsurapetik paseak izan ziren, baina; gerraren irudi faltsu bat ematen dute». Beste iturri batzuk bilatu behar izan du Markok, beraz. Bilduma pribatuetan, batetik; adituei galdetuta, bestetik. Eta artista zenbaiten lanetan. Jacques Tardiren *C'était la guerre des tranchées* (Trintxera gerla zen, 1982-1993), esaterako, ezinbesteko erreferentzia izan du. Goyak 1810 eta 1815 bitartean egindako *Gerraren hondamenak* saileko grabatuak gogora dakartzan Otto Dixen marrazkiak ahaztu gabe. Dix, Gerla Handiaren margolari nagusia, *Gerra. Tripti-*

«**Garbi dago Gerla Handia oraindik ere pisua dela gure artean, zaila dela harekin irri egitea**»

MARKO
Marrazkilaria

koa erraldoiaren egilea. Inoiz ez zion utzi fronteak eragindako barne peladurak margotzeari. Ez zegoen izugarrikeria hura ezkutazaraziko zuten zentsura eta propagandarik.

Dorgeles, Remarque, Barbusse, Dos Passos, Faulkner, Hasek, Madox Ford, Trumbo, Koppen... gerla peladurez idatzi zutenen zerrenda amaiezina da. Etengabe luzatzen ari da; Jean Echanozen *14* da horren adibide. Virginia Woolfek behin bahino gehiagotan aipatu zuen 1914a iraganaren eta orainaldiaren arteko muga dela. «Arrazoia 1914an hil zen. Orduetik, amaitu da, dena gaizki doa», utzi zuen Louis Ferdinand Celinek *Nord* (1960) nobelan. Eric Hobsbawmen esanetan, «hondamendien aroa» hasi zen orain mende bat.

«Ziloetarik elkitzen niz gero harat ützteltzeko, zer bedatse bitxia», idatzi zuen Clement Andurain idazleak 1915eko martxoaren 27ko gutun batean. Frontetik bidali zuen. Urtebete geroago, zulo batean zegoen, Verdungo batailak betiko lurperatuta.

12 LEHEN MUNDU GERRA 1914-1918

Erdialdeko potentziak (Aliantza Hirukoitza)

Alemaniar Inperioa, Austria-Hungariako Inperioa eta Italia. Aurrerago, Otomandar Inperioa eta Bulgaria bildu zitzaizkien.

Indar aliatuak (Entente Hirukoitza)

Frantzia, Britainiar Inperioa eta Errusiar Inperioa. Geroago Estatu Batuak, Italia (1915etik aurrera) eta Serbia.



Aurrekariak

Potentzia berriak

Industria iraultza gizarte berri bat sortzen ari zen. Munduan potentzia berriak ari ziren azaltzen, bereziki Alemania, AEBak eta Japonia.

Armagintza


Gerra ezinbesteko patua zela onartuta zeukaten herrialde indartsuenek sustatu egin zuten armagintza, ekonomiaren oinarrietako bat bilakaturia. Aurrerapen itzelak egin zuten armagintzak garai hartan.

Nazionalismoak

Nazionalismoen loraldia gertatu zen, eta horek gatazka sortu zituen potentzien artean: Alsazia-Lorenak Frantzia eta Alemania haserretu zituen; Balkanak etengabeko gatazka iturri ziren Serbia eta Austriaren arteko ezinikusiazatik, eta ekialdeko Europa, Errusia eta Austria-Hungariako inperioaren arteko desadostasunengatik.

Kolonialismoa

Alemania bere tokia bilatzen ari zen potentzia kolonialen artean, bereziki Frantzia eta Erresuma Batuen artean.



Tankeak

1916an, agertu zirenean, baldarrak eta mantsok ziren. 1918an hasi ziren haiek 'behar bezala' erabiltzen, infanteriarentzako bidea garbitzen.

Gas pozoitsuak

Kloro gasa, gero fosgeno eta ondoren ziap gasa etorri ziren. Haien eraginkortasuna zalantza zen, haizeak erabiltzen zutenen kontra bueltatu zitzakeen eta. Gas erasoetan ia 90.000 hil zirela kalkulatu zen.

Fusilak

Infanteriaren arma nagusia ziren, batez ere erasoako orduan.

Gerra piztu zen. Ekainaren 28a

Austria-Hungariako Inperioko tronurako hautagai Frantzisko Fernando artxidukea hil zuten Sarajevon, tiroka.

Uztailaren 28a

Austria-Hungariako Inperioak gerra deklaratu zion Serbiari. Hiru egun geroago, Alemaniak gerra deklaratu zion Errusiar, eta hitzarmena sinatu zuen Otomandar Inperioarekin.

Abuztuaren 3a

Alemania Frantziaren aurka gerran sartu zen, Belgika inbadituz. Horrek ekarri zuen Erresuma Batuek gerra deklaratzeko Alemaniari, eta gerraren bi polo nagusien osatzea: aliatuak eta erdialdeko potentziak.

Maiatzaren 23a

Italia, hasieran neutral geratu zena, sartu zen aliatuen fronteari alde.

LEHEN MUNDU GERRA

1914

Marneko lehen bataila iraila

483.000

182.000

Bi aldeek eduki zituzten hilak eta zaurituak

1915

Gallipoli Aprilia (1915)-urtarrila (1916)

473.000


633.500

1916

Verdun Otsaila-ekaina


Somme Uztaila-azaroa

976.000



Txarrantxa

Mililoika metro txarrantxa. Babes ezin hobea zen erasoak gelditzeko.



Norenik gabeko lurra

Lehen lerroko lubakia

Laguntzarako lubakia


Erreserba lubakia

Bolborategi eta almagaznak lur azpian

Granadak

Lubakiak etsaiz 'garbitzeko' baliagarriak ziren.



LEHEN MUNDU GERRA



Muga berriak
Europako inperio handiak desagertu ziren. Aldi berean, herrialde berriak sortu ziren, Errusia eta Austria-Hungariako Inperioa desagertzearekin batera.



Fronte nagusiak eta bataila odoltsuenak



Hildakoak	Militarrak 10 milioi	Zibilak* 7 milioi
Euskal herritarrek	6.000	
Zaurituak	20 milioi	
Presoak	7,6 milioi	
Soldadu kopurua	Hasieran 18,8 milioi	Gerran 64,7 milioi


* Hildako zibil gehienak ez ziren gerraren biktimea zutenak izan, baizik eta gerrak eragindako gosete eta izurriten biktimea.

Ondorioak


- Ekonomia**: Europa hondamendi ekonomikoan laga zuen gerrak. AEBei eta Japoniari, berriz, loraldi ekonomikoa ekarri zien. AEBek diru, ondasun eta gerra tresneria asko utzi ziren gerran murgildutako Europako potentzietan, eta zordun bilakatu ziren. New Yorkeko burtsa munduko nagusia bihurtu zen, eta dolarra munduko diru erreferentzia zioa.
- Gizartea**: Gizon belaunaldi oso bat galdu zenez, emakumea sartu zen sistema produktiboan, ordura arteko genero monopolioa hautsita. Emakumeen eskubide berdintasunaren aldeko borrokan aurrerapauso handi bat ekarri zuen egoera horrek. Sozialki ere langileria eta klase ertainak izugarri pobretu ziren Europan, inflazioaren ondorioz, eta gatazka sozialak izugarri gogortu ziren.
- Gatazka**: Gerraren galtzaile nagusia Alemania izan zen: kalte-ordain itzelak ematera behartu zuten, munduan zituen kolonia guztiak galdu egin zituen, armadarekin gabe geratu zen, eta Munduko Nazioen Erakundetik kanpo utzi zuten. Zigor politika horrek muturreko nazionalismoa suspertzen lagundu zuen, eta Bigarren Mundu Gerra ekarri zuen nazismoa sortzen.



Hegazkinak
Gerra hasieran behaketaarako erabiltzen ziren gehienbat. Baina amaierarako alde guztiak euren estrategietan barneratuta zeuzkaten.





Artilleria
Haren ondorioz hil edo zauritu ziren %80. Gero eta kalibre handiagoko kanoiak erabili zituzten.



Lubaki gerra
Lehen Mundu Gerra lubaki gerra bat izan zen, beste guztiaren gainetik. Lubaki gerra borroka egiteko modu bat da, zeinean elkarren aurka ari diren armadak lurra zulatutako lubakietatik ari diren aurrez aurre. Suzko armen eragina indartzearen ondorioz sortu zen lubaki gerra; izan ere, armek gero eta gehiago suntsitzeko ahalmena izan arren, mugitzea ez baitzen bereziki erraztu. Lehen Mundu Gerran, eta bereziki mendebaldeko fronteetan, guztiz nagusitu zen lubaki gerra. Bat eta bi metro arteko lubakiak egiten ziren, eta elkarren arteko pasabideak egiten ziren borrokan ari ziren soldaduen mugimendua errazteko.

Metrailadoreak
Sommeko ofentsiban (1916) lehen egunean 60.000 soldadu britainiar hil ziren, gehienak metrailadoreengatik.



Urpeko ontziak
Alemaniak, hasieran bidaia ontziak eta merkataritza ontziak errespetatzen bazituen ere, gero denen kontra egin zuen, eta itsas garraioa izugarri zaildu.

AZKARRA ETA AZKENA BEHAR ZUENA

Historiak erantzukizun guztia Alemaniari egotzi badio ere, guztiak izan zuten gerra hura gelditzeko aukera, baina interes politiko eta ekonomikoek pisu handiegia zuten.

Arantxa Elizegi

Tragedia bat onartzea beti da errazagoa errudina auzokoa denean. Baina sarraskiak gutxitan izaten dira pertsona edo erakunde bakar baten erantzukizuna. Are gutxiago Lehen Mundu Gerraren kasuan, Europa osoa suntsitu baitzuen. Gavrilo Princip serbiar nazionalistak Frantziako Fernando austriakoa eta haren emazte Sophie Chotek hil izana izan zen Austria-Hungariako Inperioak Serbiari erasotzeko baliatutako aitzakia. Baina horren atzean bazen pisu handiagoko argudiorik. «Vienako botereek kolokan zegoen inperioaren gainbehera eragozteko modua ikusten zuten Serbiaren aurkako gerran. Vienan etsita zeuden, eta buruzagi militar asko tematuta zeuden inperioak desagertu behar bazuen haren etsaiek ere berdin egin behar zutela, baita horretarako gerra Europa osora zabaldu behar bazuten ere», dio Stig Foersterrek, Bernako Unibertsitateko historia katedradunak.

Austriak, ordea, laguntza nahi zuten, eta Alemanian aurkitu zuen behar zuen aliatua, Gilen I. kaisarrak «erabateko babesa» adierazi zionean. «Europar beldur ziren Alemania botere nagusi bilakatuko ote zen. Hura zen ekonomikoki eta militarik indartsuena, baita gizarte aurreratuna zuena ere, baina baliabideak falta zitzaizkion nagusitasuna lortzeko. Alemaniako kantziler Bethmann Hoolweg presiopean zegoen, kaisarrak eta buruzagi politikoek indar erakustaldia nahi zuten, eta, bide batez, Frantzia eta Errusiaren arteko aliantza ahuldu, beldur baitzen azken hori hartzen ari zen indarrak. Aldi berean, Errusiak hamar urte lehenago Japoniaren aurkako gerran izandako porrota ahanzi eta bere mugak sendotu nahi zituen Serbiari lagunduz. Paris eta Londres, berriz, beldur ziren Alemania indartuta aterako ote zen. Britainia Handiak gainera, arerio zuzentzat zuen Alemania; izan ere, Frantzia garaituz gero ordura arteko indar oreka amaituko zen. Zenbait historialarik erantzukizuna denen artean banatzen duten arren, egia hauxe da: Alemaniaren babesik gabe Vienak ez zion Serbiari erasoko, eta historia bestelakoa izango zatekeen», nabarmendu du Foersterrek. Hala, 1914ko uztailaren 29an, Austria-Hungariako Inperioak Belgradorik eraso zion. Hurrenez hurren, Errusia, Alemania, Frantzia eta Britainia Handia batu ziren. Hasia zen Lehen Mundu Gerra.

Gabonetarako, amaitua

Politikoki zaharkitua —inperioe eustea zen haren helburua—, eta militarik berritzailea —ordura arte inoiz erabili gabeko teknologia sortu zuten gatazkarako— izan zen gerra hura. David Stevenson historialariak *1914-1918. Historia de la Primera Guerra Mundial* (Lehen Mundu Gerraren historia) liburuan nabarmetzen duenez, Mendebal-



Soldadu britainiarrak errekrutatzen, Londresen, 1915ean.

1918ko gripea



25.000.000

GERRA BAINO HILGARRIAGOA

Spanish flu (Espainiako gripea) izena jaso zuen. Izan ere, zentsurak Europako hildakoen datuak isilarazi zituen, gerran zeuden soldaduen artean beldurra zabalteza saihestu nahian. Aldiz, Espainian ez zegoen hala-korik —neutraltasunari eutsizion—, eta, beraz, bazuridien han eragin zuela sarraski handiena. Gerora jakin ahal izan denez, ordea, 1918an izurri bilakatu zen gripeak 25 milioi hildako eragin zituen lehen 25 asteetan. 15 eta 44 urte arteko gazteei eragiten zien gehien birusak; ondorioz, hondamena eragin zuen frontean, soldaduen elikadura eta bizi-baldintza txarrak indartuta. Orotara, 50 eta 100 milioi hildako artean eragin zituen.

deko Frontean eraikitako lubakiek, erromatarren garai-ko gotorlekuekin alderatu izan badituzte ere, egiazki ez zuten aurrekaririk. Alemaniarrak izan ziren lubakiak erabiltzen lehenak, eta, beraz, haiena izan zen, hasieran bederen, abantaila; izan ere, soldaduak lehegailu eta jaurtigaietatik babesten zituzten. Sistemaren azken helburua zen soldadu kopuru txikiekin inguru bat epe luzean defendatu ahal izatea. Hiru lubakik osatzen zuten lehen lerroa zeritzona: zaintza taldeentzat, lehena; soldaduentzat, bigarrena; eta sostengu taldeentzat, hirugarrena. Lubakiek eurek ere diseinu berezia zuten, ez baitziren erabat zuzenak, eta hamar metrotik behin, sigi-saga egiten zuten, soldaduak leherketatik babesteko.

Aliatuak ez ziren, ordea, atzean geratu, eta berehala sortu zuten euren sistema propioa. Berdin gertatu zen gerrarako beste teknologiek ere, gas pozoitsuekin kasurako —frantsesak izan ziren azken horiek erabiltzen lehenak, nahiz eta gero alemaniarrek teknika hobetu zuten—. Baina, aste batzuen buruan, hor ere indarrak berdindu ziren. Horren guztiaren ondorioz, «Gabonetarako bukatua» behar zuten gerra hark lau urte iraun zuen.

Propagandak indarra hartu zuen; izan ere, agintariek «gerra guztiak amaituko zituen gerra» gisa defendatu zuten frontera joateko erabakia. Gazteek azken gerra hartako heroiak izan nahi zuten, «aukeratuak», Werner Sombart ekonomis-

tak zioen moduan. «Propaganda ez zen gaur egun ezagutzen dugun modukoa. Orduan prentsa, antzerkia eta zinema ziren agintarien bozgorailuak, haiek ziren estatuaen mezuak zabaltzeko arduradunak eta gerrak garaipena ekarriko zuela sinetsarazteko lan egin zutenak», azaldu du Jay Winters Yale Unibertsitateko historia irakasleak. Gerra ez zen, ordea, filmetan bezalakoa.

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

“**Gorrotua maila izugarrietara heldu zen. Hildakoen familiek mendekua nahi zuten**”

JAY WINTERS
Historialaria



Australiako soldaduak, gas maskarak jantzita, 1917an, Ieperren.

16 LEHEN MUNDU GERRA 1914-1918

(Aurreko orrialdetik dator)

«Muinoak sumendia dirudi: metrailaren kea; suziri hori, gorri eta berdeek agintzen diote artilleriari tiro egiteko edo suari eusteko; edonon lehertzen diren bonbak distira izugarria eta ke beltza utziz. Soinua ikaragarria da, auhe-neak, kantuak, zurrumurrak eta oihiak aurrean eta atzean, altzairua lehertzen den artean. Beldurgarria da zenbat hildako dauden inguruan», zioen gudari frantses batek bere egunerokoan. Apurka bazen ere, halako testigantzen bidez errealitatearen irudi zehatzagoa osatu zuten herritarrek, baina horrek gerrarako bestelako grina zabaldu zuen. «Gorrotoa maila izugarrietara heldu zen. Belgikan eta Frantzia egin zirenak bezalako sarraskiak zigortu egin behar ziren. Frontean senideak galdu zituzten familiek mendekua nahi zuten. Lehen Mundu Gerrak eragindako gorrotoa beste edozein gatazkak eragiten duenaren antzekoa da, baina handiagoa, zabalagoa, denboran luzeagoa eta sakonagoa», nabarmendu du Jay Winter historialari estatubatuarak.

Akordioa ez, mendekua

1916rako, Alemaniak, Frantziak eta Austriak gerrara bidaliak zituzten borrokatzeko gai ziren gazteen %80. Belaunaldi oso bat jo zuen gatazkak, tartean, Adolf Hitler bera, zeinak handik urte batzuetara Alemania Bigarren Mundu Gerran sartuko zuen. Bazirudien gatazka betierekoa izango zela. Baina 1917an, Britainia Handia negoziazio mahaira eramateko asmoz, oinarritzko gaiak eraman zituzten ontziei erasotzeko agindu zuen kaisarrak —urte bereko abenduan, Errusiako eta Alemaniako ordezkariak bake elkarrizketak hasi zituzten, lehenaren ekimenez, ekonomikoki hondoa joa baitzen ordurako eta

tsarrak agintea utzia baitzuen—. Hura izan zen, ziurrenik, Gilen II.a kaisarraren akatsik handiena; izan ere, Londres hornitzen zuten ontzien artean zeuden AEBetakoak, zeina ordura arte ez zen Mundu Gerran sartu.

«**Gauza asko egin ziren gaizki Parisko akordioetan. Egin zezaketen okerrean egin zuten**»

«**Gerrak ez dira desagertu. Baina ez dugu okertu behar, mundua asko aldatu da 1914tik**»

STIG FOERSTER
Historialaria

1918an, milioi bat soldadu estatubatuar heldu ziren kontinentera. Erraz garaitu zituzten ordurako ahiatuak zeuden alemaniarrek eta haien aliatuak. 1918ko azaroaren 11ko goizeko hamaiketan amaitu zen gerra. Lau egun lehenago heldua zen Matthias Erzberger buru zuen alemaniar ordezkariak Belgikara. Han, tren bagoi batean sinatu zuten *Versaillesko Ituna* izenez ezagutzen dena. Ez zioten elkarri eskurik luzatu; ez zen akordiorik izan, porrotaren aitorpena baizik. Sinatutakoan, hala ohar-tarazi zuen Erzbergerrek: «70 milioi biztanleko nazio batek sufri dezake, baina ez da hilko». «Gauza asko egin ziren gaizki Parisko akordioetan —ez soilik Versailleskoetan—. Frantziak ez zuen nahi Alemania potentzia izaterik, eta, ahal izanez gero, nazio gisa ere desagerrarazi nahi zuen. Britainia Handia eta AEBak, ordea, ez zeuden ados, beldur baitziren Parisek nahi zuena eginez gero hura bilakatuko zela kontinenteko indar nagusia. Beraz, tarteko bidea hartu zuten, zeinak Alemania epe luzera zigortzea zuen helburu. Baina hark bazuen oraindik berreraiki eta are arriskutsuago bilakatzeko nahikoa botere. Versaillesko Ituna baliatu izan ba-

zuten Alemania behin betiko suntsitzeko edo hura demokratikoki berreraikitzeko baliabideak eskaintzeko, beste testuinguru batean geundeko. Baina egin zezaketen okerrean egin zuten. Hartu ziren zigor ekonomikoak ere izugarriak izan ziren. Denen artean gerrak eragindako hondamena konpontzen ahalegindu beharrean, Frantziak eta Britainia Handiak Alemaniari ordainarazi zituzten euren zorrak», salatu du Stig Foersterrek. Inperioen alde borrokatu ziren kolonietako soldaduentzat ere ez zen saririk izan. «Versaillesko Itunak Alemania egiten zuten gertatutako guztiaren erantzule. Kolonien autodeterminaziorako aukera ere ezin txarragoa izan zen, soilik zuriak hartzen zituelako kontuan. Horrek bultzatu zituen kolonialismoaren aurkako lehen mugimenduak Egipton, Indian, Korean eta Txinan. Motzen esateko, beraz, hitzarmenak kolokan jarri zuten inperioen ordena», dio Winterrek.

Ehun urte igaro arren, historialariek antzekotasun ugari topatzen dituzte orduko testuinguruaren eta egungoaren artean. Egun, zigor ekonomikoek ordezkatu dituzte orduko baionetak. «Lehen Mundu Gerra klixe bat da. Bigarrenarekin batera Europako Batasunaren sorrera ahalbidetu zuen. Horren helburua izan zen 'aski da!' esatea. Nazionalismoak alde batera utzi, eta elkarlanean oinarritutako Europa eraikitzea zen asmoa. Finantza krisiak erakutsi duen moduan elkarlanak arazo larriak eragin ditzake. Bestetik, gerrak ez dira desagertu. Ezin dugu ziurtatu kontinente arteko gerrarik egongo ez denik etorkizunean. Asia ekialdeko egungo testuinguruak badu antzekotasunik 1914ko Europarekin. Baina ez dugu okertu behar, mundua asko aldatu da orduetik. Erkatzeak alferrekoak dira. Eta itxaropena badut egun erabakitzeke ahalmena duten buruzagiek zerbaite ikasiko zutela 1914an egindako akatsetatik», ondorioztatu du Foersterrek.

GERRA, JOAN-ETORRIKO BERDINTASUN EGOERA

Gizonak frontean egonik, 'haienak' ziren lanak hartu zituzten emakumeek, baita boto eskubidea lortu ere.

A. Elizegi

«Britainia Handian askok argudiatzen zuten emakumeek ezin zutela bozkatu haien garuna gizonekoena baino txikiagoa zelako eta, beraz, bozak iritsitakoan ez zirelako aukeratzeko gai izango. Esaten zuten haien fisiologiak agintzen zuela —haurren zaintzak, hilekoak, erditzeak eta menopausiak— eta, ondorioz, tarteka burua galtzen zutela»; hala dio Diane Atkinsonek, idazle eta historialari britainiarrek. Argudio horiek berak edo oso antzekoak erabiltzen zituzten Lehen Mundu Gerra aurreko edozein herrialdetan; izan ere, sufragisten mugimendua 1900 inguruan jaio bazen ere, herrialde gehienetan emakumeek ez zuten boto eskubiderik izan gerra bukatu arte. «Sufragisten mugimendua ez zen ongi ikusia. Jendea mehatxatuta sentitzen zen, emakumearen betiko testuingurutik ateratzen zirelako», azaldu du Atkinsonek. Hain zuzen, gerrako urteetan egindako lana saritu eta barne gatazkak saihesteko balio izan zuen emakumezkoen boto eskubideak. Britainia Handian, esaterako, 1917tik aurrera 30 urtetik gorako emakumeek onartu zieten eskubide hori. AEBetan ere, garaitu horretan aukeratu zuten lehen emakumezko ordezkaria, Jeannette Rankin, errepu-

blikano feminista eta bakezalea. Alemanian ere gerraostean eta ezkerren ekimenez onartu zieten emakumeek bozkatzeko eskubidea, argudiatuz «gizartea baketzeko» balioko zuela.

Mugimendu sufragistaren atzean bi mugimendu nagusi zeuden: bata, gerraren aldekoa eta gobernuaren babesa zuena, eta bestea, bakezalea. Azken horretako kide zen Aletta Jacobs herbeheretarra. Hark antolatutako Bake eta Askatasunerako Emakumeen Nazioarteko Konferentzia Hagan, 1915ean. Bertan parte hartu zuten hamabi herrialdetako milatik gora emakumeek, eta gehiago izango ziren, ordezkari britainiarrei herrialdetik irteten utzi izan bazieten.

Behin-behineko askatasuna

Gerrak gizarteko alor guztiak irauli zituen, baita ordura arte ontzat ematen ziren rolak ere. Gizonak frontean egonik, norbaitek egin behar zituen *haienak* ziren lanak —soldada erdiaren truke bazen ere—. Britainia Handian, esaterako, gobernuaren esku geratu ziren munizio lantegi guztiak, eta haietan emakumeak ziren nagusi. Orota-ra, gerrak iraun zuen lau urteetan 1,6 milioi emakume aritu ziren lanean gobernuarentzat, gehienak arma lantegietan.

Bakanagoak, baina izan ziren frontera joan zirenak ere. Haien artean nabarmenezkoa da Flora Sandes britainiarra, zeina Serbiako armadako komandante izatera heldu zen, Britainia Handia lotsagarri utziz. Izan ere, Londresek bere fabriketan soilik nahi zituen haiek, eta ez frontean gizonekin batera borrokatuz. Izan ziren emakumezkoen batailoiak ere. Horieta bat, Maria Botzkare-



Emakumeek lanera deitzeko kartel bat.

vak zuzendutakoa. Hark 2.000 emakumez osatutako batailoia sortu zuen Errusiako armadaren barnean, borrokarako unean gizonak lotsarazi eta errazago garaituko zituzten argudioarekin.


Itxurazkoa eta epe laburrekoa izan zen, hala ere, askatasun egoera hura. Gerra amaitu orduko, herrialde gehienetan lehengora itzuli ziren emakumeak, alegia, ikusezintasunera. «1931rako, etxetik kanpo lan egiten zuten emakumeen kopurua gerra aurrekoaren parekoa zen», azaldu du Joanna Burkek, Londresko Unibertsitateko historia irakasleak.

Pertsonaiak



Manfred von Richthofen
‘Baroi gorria’,
Alemaniako
Armadaren
aireko heroia

→ *Baroi gorria* deitzen zioten, haren hegazkina kolore horretakoa zelako, jakin bai baitzekien etsaiek beldur ziotela eta bere airekoa ikustean haien artean izu-ikara zabaltzen zela. Ez zitzairen arrazoirik falta. 1918an tiroz hil aurretik, 80 hegazkin bota baitzituen Manfred von Richthofen pilotu alemaniarrak, hala, bere herriko heroi eta gerrako aldarri bilakatu zen. Gerrako lehen urteetan, hala ere, zalditeriako soldadu izan zen Richthofen, eta baita infanteriako ere. Baina Oswald Boelcke pilotua ezagutu zuenean, 1916ko irailean, aldatu zen haren zoria, berak zuzendutako eraso eskudroian parte hartzea proposatu baitzion. Hurrengo hogei hilabeteak oparoak izan ziren haren karrera militarrean, izan ere, ordura arteko markak hautsi zituen, eta horri esker merezimen-duzko gurutzea eman zioten. Denborarekin, bere eskudroia osatzeko aukera izan zuen, zeina *Zirku hegalaria* izenez egin zen ezagun —hegazkinek kolore biziak zituzten etsaiak nahasteko asmoz—. Orotara, hamalau pilotuk osatzen zuten taldea, zeinak trenean mugitzen ziren fronte batetik bestera. Orotara ia 60 batailatan parte hartu zuen. 1918ko apirilaren 21ean, soldadu australiar batek, William John Evansek, hil zuen tiroz Frantziako aire eremuan.



Philippe Petain
Verdungo
bataila
irabazi zuen
armadaburua

→ Ahaliak eta hildako gutxiena izateko neurriak hartzen zituelako egin zen ezagun Philippe Petain armadaburu frantziarra. 1916an, Petainek zuzendu zituen Verdunen borrokatu ziren soldadu frantziarrak. Haren estrategiaren oinarrian zegoen soldaduak behar bezala prestatuta egon behar zutela, eta hori bera egin zuen Verdunen ere. Barle-Duc eta frontearen arteko komunikazio lerro bat zabaldu zuen, tropei munizio gehigarria, janaria eta osasun zaintza eramateko. Frantziako armadak Damen Bideko borroketan egindako okerrak errepika ez zituzten —100.000 soldadu frantses hil ziren—, militarrek buruzagitzat hartu eta berehala, soldaduen bizi-baldintzak hobetzeko neurriak hartu zituen Petainek, eta baita mutinak gogor zigortu ere —haietako batzuk bultzatu zituztenak fusilatu egin zituzten—. Hartutako neurriei esker, 1917ko urrian Parisek alemaniarrak garaitu zituen, eta Damen Bidea bereganatu. Gerraostean, Frantziako mariskal izendatu zuten. Lehen Mundu Gerran ez ezik, bigarrenean ere izan zuen zeresanik Petainek, Frantziako presidentea izan baitzen herrialdea Alemaniaren menpe egon zen denboran.



Armeniar haurrak erreguka eskuan ogi zati bat duen turkiar soldadu bati, 1915ean.

BASAKERIAREN LOGIKA PRAKTIKARA ERAMANA

Datu zehatzik ez dagoen arren, gerrak iraun zuen lau urteetan milioi erditik gora armeniar hil zituztela uste da.

A. E.

«Armenia eta turkiarren arteko gatazka gerra hasi aurrekoa da, baina Konstantinoplan agintean zegoen triumburatuak hura behin betiko amaitzeko baliatu zuen gerrak zabalduz gora. Hau da, etsai etnikoak identifikatu eta suntsitu zituen inperioak. Gerrak ahalbidetu zuen genozidioa», nabarmendu du Jay Winter, AEBetako Yale Unibertsitateko Historia irakaslea. Gorroto eta ezinikusi horren froga da William Ramsay etnografoak 1890ean idatzitakoa: «Turkiarrek neurrigabeko erdeinuz agintzen dute... armeniar (eta greziarrek) zakurrak edo zeriak balira bezala erabiltzen dituzte... tu egiten diete, haien itzalak turkiar bat iluntzen badu; euren oinetako lokatza garbitzeko erabiltzen dituzten alfobrak dira. Mendeetako esklabotzaren, irainen eta mespretxuen ondorioz, urteetan euren jabetzak ukatu osten, ezin dute indarkeriatik ihes egin, eta hari indarkeriaz erantzuteak heriotza dakar». Otomandar Inperioan kristauak bigarren —edo hirugarren— mailako hiritarrak ziren: auzitegiek ez zuten haien testigantzarik kontuan hartzen turkiar baten aurkako epaiketari, ezin zuten armarik erabili, ez eta zaldi gainean ibili ere; eta erlijio jarduerak erabat mugatuta zeuden.

Otomandar Inperioak 1914ko azaroan Frantzia, Erresuma Batua eta Errusiaren aurkako *gerra santura* deitu zuen, Alemaniaren laguntzarekin Libian eta Balkanetan galdutako lurak berreskuratuko zituen ustearekin. Kontuan izanik armeniar komunitatearen zati handi bat Errusian bizi zela, etsaiari laguntzea egotzi zieten, eta haien kontrako operazioak bultzatu zituzten. «Turkiar Inperioan bizi ziren bi milioi armeniarrek ez ziren inoren-

tzat mehatxu. XX. mendean ere erabili izan den ideia bera sostengatu zuten, hau da, gerra politika dela. Baina gerra gorrotoa da, eta kasu honetan, gerrak, deuseztatzea esan nahi du», dio Winterrek.

1915eko apirilaren 24an agintariak 250 intelektual armeniar atxilotu eta deportatu zituzten. Errusiako armeniarrei laguntzea egotzita. Egun horretan gogoratzen dute mundu osoko armeniarrek euren herriaren genozidioa. Egun hartatik aurrera sarraskiak eta hilketak bata bestearen atzetik heldu ziren. Gobernuak armeniarrek kanporatu eta haien jabetzak eskuratzeko agindua eman zuen. 1915eko abuztuan hala deskribatu zuen *The New York Times* egunkariak inork aitortzen ez zuen genozidioa: «Eufrates ibaia eta inguruko bideak kanporatuen gorpuez beteta daude, eta bizirik jarraitzen dutenek badakite heriotza gertu dutela. Armeniar komunitate osoa suntsitzea da egitasmo honen helburua».

Armeniarrek Siriatic barna bidali zituzten, basamortua zeharkatuz, esku-hutsik. Bidean, lapurretak, hilketak eta bortxaketak jasan behar izan zituzten, maiz eurak babesteaz arduratu behar zuten soldaduengandik. Izan ziren ere konzentrazio esparruetan sartutakoak. Orain arteko ikerketen arabera, orotara 25 esparru egin zituzten turkiarrek, egungo Irak eta Siriako mugetatik gertu.

Ez dago 1914 eta 1918 bitartean hil ziren armeniarren datu zehatzik. Dena den, historialari gehienek uste dute milioi erdi inguru izan zitezkeela; badira, ordea, kopurua 600.000 eta 1,5 milioi artean kokatzen dutenak. Turkiak, hala ere, beti ukatu izan du armeniar komunitatearen aurkako genozidioa egon zela. «Lehen Mundu Gerra izan zen ordura arteko gerra handiena. Bigarren Mundu Gerra hura baino handiago eta ankerragoa izan zen. Ez da kasualitateak biak ala biak genozidioak markatuak egotea. Hau da gerra totalari lotutako basakeriaren logika», ondorioztatu du Jay Winter historialari estatubatuarrek.

1915eko apirilaren 24tik aurrera eguneroko bilakatu ziren Turkiako armeniarren atxilotze eta kanporatzeak

FAKTURARIK LUZEENA



Emakume britainiarrak fabriketan lanean, bonbak betetzen. THE ART ARCHIVE / IMPERIAL WAR MUSEUM

Gerra ostean, ekonomikoki ito egin zen Europa, eta AEBak, guduak aberasturik, nazioarteko lehen potentzia ekonomiko bilakatu ziren.

Jon Fernandez

Bizi-bizirik daude oraindik Gerra Handiaren herentzia ekonomiko batzuk. Allensbach inkesta etxearan arabera, alemaniarrek gaur egun beldur handiagoa diote hiperinflazioari, minbizia bezalako gaixotasun hilgarri bano. Lehen Mundu Gerrak potentzia nagusien ideologia eta politika ekonomikoan DNAn iltzatu zituen arrastoetako bat baino ez da Bundesbanketik eta alemaniarrek inflazioari dioten fobia. Herentzien zerrenda askoz luzeagoa da.

Lardaskeria ekonomikoa izan zen Versaillesko bake ituna, ekonomista gehien arabera, XX. mendeko gorabehera guztiak baldintzatuko zituen. Ez da alferrik ikasten Historia fakultateetan Lehen Mundu Gerra izan zela «joan den mendeko hondamendi guztien ama», eta 1919ko bake itunak jarri zituela Bigarren Mundu Gerra pizteko oinarriak. Garaileak, zigor politiko, geografiko eta militarrez gain, zigor ekonomiko ikaragarriak ezarri zizkieten galtzailei. Aliatuek 226.000 milioi marko alemaniar ordaintzera behartu zuten Berlin. Zigorra kortse estuegia bihurtu zen aurrez gerran zorpetu eta pobretutako herrialdearentzat. Arnasarik hartzeko tarterik ez zioten utzi Alemaniari, eta ataka horretan bi kolpe gogor jaso zituen: 1923ko hiperinflazioa —urte horretan prezioak bikoiztu egiten ziren lau egunetik behin— eta 1929ko

crash latzaren kalteak. Hans-Joachim Voth historialari ekonomikoaren esanetan, alemaniarrek «psikosi kolektiboa» bizi izan zuten, eta engainu bikoitza, gerra eta dirua galtzea. Klase ertainak nozitu zen gehien, klasea bera desagertzearaino. Ogi barra batek 163 marko balio zuen 1922an; 1923ko azaroan, berriz, 200.000 milioi marko. Pobrezia guztiz orokortu zen, eta testuinguru horretan loratu zen nazismoa.

Baina memoria selektiboa ere badela nabarmendu du *The Guardian* kazetan Albrecht Ritschl London School of Economicseko Historia Ekonomikoko irakasleak. Berlin Greziari erreskateko zorrak barkatzeko prest ez dagoen honetan, gogorazazi du aliatuen zor kitatzeagatik egin zuela aurrera Alemaniak —aliatuen artean zen Atenas—.

2010ean amaitu zuen Berlinek Lehen Mundu Gerrako zorraren ordainketa. Guztira, 337.000 milioi euro pagatu ditu 92 urtean, Versaillesen sinatu baino dezentet gutxiago. Bigarren Mundu Gerraren ostean, Londresko 1953ko Konferentzian, aliatuek zorraren erdia barkatu ziotelako. «Gerra garestia zen», David Stevenson historialariak *1914-1918 Historia de la Primera Guerra Mundial* liburuan (Debate) argudiatu bezala. Europako ekonomia txikituta eta zorpetuta laga zuen gerrak; lau inperio erori eta estatu eta merkatu berriak sortu ziren —asko ahulak—, eta lau urtez ekonomia militarera osorik

emandako industriak zeregin barik geratu ziren. Fronteak eta inbasioek harrapatutako Belgikako eta Frantzia iparraldeko industriagune nagusiak, gainera, txikituta geratu ziren. Eibarko armagintzan gertatu bezala, moldaketa handi eta zailen urteak izan ziren gerra ostekoak kontinentean. Gerora autogintzako erraldoi bihurtuko ziren marka asko armaginak izan ziren gerra amaitsu arte: Citroenek munizioa egiten zuen, eta Renaultek tankeak; BMWk, berriz, gerra hegazkin alemaniarrentzako motorrak.


Guztira, 152.200 milioi euro inguruko faktura izan zuen Gerra Handiak. Gastu militar ikaragarriari aurre egiteko kokotseraino zorpetu ziren Europako potentziak. Lau urtean, Berlinen gastu publikoa —ia osorik militarra— BPGaren %18tik %76ra igo zen; Londresko %70 gainditu zuen 1917an; urte berean, Frantziaren gastu militarrek BPGaren tamaina gainditu zuen, eskutatako maileguengatik neurri handi batean.

Zelan egin zitoen aurre gerrako gastuari kontinenteko potentziek? Eskura zituzten bide guztiak erabili zituzten: zergak igo zituzten —gerrako gastuen %26,2 zergek ordaindu zituzten Londresen, %16,7 Berlinen eta %15 Parisen—; gerrako bonu publikoak saldu zizkieten aurreztaileei —AEBetan *Liberty bonds* deitu zieten gerra garian, eta *Victory bonds* 1918tik aurrera—; nazioarteko ordaintzetarako urte eredu hausti eta likidezia lortzeko diru papera barra-barra ekoiztu zuten —inflazio handia eragin zuen, eta munduan urte ereduaren ordez dolarra gailentzen hasi zen—; eta aliatuek, batez ere, maileguak eskatu zizkieten Washingtoni.

Emakumeak eta langileak

Beste herentzietako bat, hain zuzen, munduko indar korrelazio aldaketa izan zen. Japonia eta, bereziki, AEBak nabarmen apatu ziren, Europaren nagusitasunari amaiera emanez. Herrialde neutralek ere —Espainiak tartean— dirutza egin zuten, eta Euskal Herriko industriak ere sekulako gorakada izan zuen. AEBena izan zen, baina, gorakadarik meteorikoa. Gerra lehen hiru urteetan aliatuak hornitu eta mailegatu zituen —1918tik aurrera Europako potentziak menpean izatea lortu zuen horrela—, eta gerran urtebetez aritu ostean irabazle ateratu zen. Politikoki eta ekonomikoki. Atzeraldi ekonomiko larri batean egon ostean, munduko lehen potentzia bihurtu zen lau urtean.

Gerraren faktura ekonomikoak, dena den, izan zituen gizarterako alde on batzuk ere: emakumeak lehen aldiz lan merkatuan sartzeak —aliatuen bandoan bereziki— mugimendu feminista eta sufragista hauspotu zituen, eta armagintzaren gorakadak inoiz baino eskulangile gehiago eraman zituen industria lanera, langile kontzientzia eta mugimenduak indartuz —1917ko Errusiako iraultza izan zen ondorioz berehalakoena—. Europako potentziek, ordea, ez zituzten borondatez bete fabrikak andrez, beharrezanagatik baino: gizonezkoen lana ordezkatzeko. Frantzian, 1918an, armagintza sektoreko 1,7 milioi langileetatik 430.000 emakumeak ziren. Londresko Woolwicheko arma fabrika 195 emakume zeuden lanean 1915ean; 1917an, berriz, 25.000.



Dirua eta soldaduak biltzeko propaganda handia egin zuten alde guztiek, gerra bonuak ere salduz. Goitik behera, Londresen, Berlinen eta Washingtonen kartelak.

Lehen Mundu Gerraren osteko huts ekonomikoaren lezioa ikastea ezinbestekotzat jotzen du Guiraok, akatsetan eta arriskueta antzekotasun dezente ikusten dituelako orduan eta orain.

Jon Fernandez

«Interesgarriena», Fernando Guiraorentzat (Granada, 1962), egungo krisi egoerak Lehen Mundu Gerra aurreko eta osteko garaiekin dituen antzekotasunak aztertzea da. Historian katedraduna da Guirao, eta Historia Ekonomikoko irakaslea da Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitatean. Argi ditu zeintzuk diren Gerra Handiak epe luze- ra utzitako hiru eragin nagusiak: lehen globalizazioaren, inperioen eta Europaren nagusitasunaren amaiera. Ikuspegi sozialetik, bi ekarpen nabarmen airtortzen dizkio. Batetik, «emakumeak gizarre modernoan hartu beharreko lekua kontzientzia». Bestetik, «antolatutako langileria mugimenduen indartzea».

1914ko gerraren atzean Inperio Britainiarraren eta Alemaniarraren arteko lehia komertziala ikusten dute ekonomista askok.

Hori baino konplexuagoa da. Arrazoi ekonomikoak, politikoak eta ideologikoak nahastuta zeuden. Bigarrenaren aldean, lehen gerran mundua askoz ere multipolarra zuten. Gora bidean ziren potentzia batzuk, eta behaldi ez oso argian besteak. Ezegonkortasun handia zegoen. Tirabira handiak zeuden, eta edozein txinpartak sor zezakeen sua. Inperioen hedapenagatik, tokiko edozein gatazka mundu gerra bihurtu zitekeen.

Horixe gertatu zen.

Oso epe laburreko interesak defendatzeko indarra erabiltzeko prest zeuden inperioak. Indarkeria erabiliz airea galitzen ari ziren inperioak kikiltzea espero zuten. Gatazka militarra motza izango zelakoan zeuden, gainera. Gerra hasi zeneko sorpresa handiena izan zen jendea kantatzen zihola frontera.

Gerra motza espero zuten denek.

Inkontzientzia orokorra zegoen, harrokeria ergela. Oso gerra motza espero zuten. 1914ko udan hasi zen gudua, eta egunkari askok iragarri zuten Gabonetarako soldadua epean egongo zirela.

Inperioak aurrez prestatu ziren gerrarako?

Bigarren Mundu Gerran Alemania bai, baina lehenengoan ez. Neurri handi batean, arazo hutsalengatik piztu zen eragin ikaragarriko gatazka.

Ekonomiak zer pisu izan zuten gerra pizteko orduan?

Handia. Alde batetik, Alemania gora bidean zen. Oraindik ez zen Europaren erdigunea, baina asmo hori zuten. Bestetik, maldan behera zihoran Britainiar Inperioa, nazioartean interes handia zuena. Tirabira handiak zituzten interes komertzialengatik. Baina Londres nazioarteko merkataritza potentzia bat zen, eta Alemania ez. Lehia komertziala, beraz, txikiagoa zen. Berlinek industria astuneari zeukan pisua, ez merkataritzan.

Nor atzeratu zen ekonomikoki indartsuago gerratik?

Denak atzeratu ziren gaitzaile. Baita AEBak ere, gainontze-koak baino hobeto atzeratu.

Zergatik?

Epe laburrean irabazi handiak izan zituen Washington. Lehen potentzia bihurtu zen, baina hala izateko erabakimen handi barik. Neurri batean, gaurko Europan Alemaniak hartu duen lekua hartu zuen munduan. Ekonomikoki lehen potentzia izan arren, ez zituen bere gain hartu nahi lidergoak eskatutako kostuak. Baina gerraren faktura, luzera, ikaragarria izan zen denentzat.



POMPEU FABRA UNIBERTSITATEA

Fernando Guirao • Historialaria

«Ez gaude duela ehun urte bezala, baina antzekotasun handiak daude»

Alemaniarentzat, batez ere. 2010ean amaitu zuten Lehen Mundu Gerrako zorraren ordainketa.

Alemania izan zen kaltetuena, baina Ingalaterra ere bai. Gerraren ostean Ingalaterrakoa zen ekonomiarik zorpetuena. Hortxe hasi zuen nazioarteko gainbehera.

Egungo Europako zorpetzearekin konparatzerik badago?

Bai, hein batean. Oso interesgarria da antzekotasunak aztertzea. Zor masiboa barne devaluazioaren bidez konpontzen saiatu ziren, gu orain bezala. Ez zuten lortu, jakina. Urre erudera itzultzen saiatu ziren, soldadak izugarri jaitsiz, eta 1926an ingelesek lehen greba orokorra egin zuten, Winston Churchill orduko Ogasun ministroaren kontra.

Zergatik desagertu zen erreduzio Lehen Mundu Gerran?

Europako potentzietan interesak ez zituelako betetzen. Urre ereduari eusteak barne devaluazioa eskatzen zuen, eta gerrako aztoramen sozialarekin soldatak jaitea erloju-bonba bat zen. Orain familiaren

eta zerbitzu sozialen babesik izango ez bagenu, 1920ko egoeraren pare egongo ginatke. Eta egoera hark faxismoa ekarri zuen.

Zeintzuk dira orduko eta gaurko antzekotasun nagusiak?

Zorrarenaz gain, Europaren nagusitasunaren amaiera. Gaur ere Europa gain behera doa gora bidean diren potentzietan ondoan. Hori gertatu zen lehen globalizazioaren amaieran, eta horrek ekarri zuen Gerra Handia.

Egoera oso antzekoan gaude orain, bigarren globalizazioaren aurrean.

Historia errepikatuko gertatu da?

Historia ez da inoiz errepikatzen, baina ikasteko balio du.

Nekez ikasten du gizakiak, ordea.

Iraganetik ikasteko prest dagoen gizarre bat behar da; lider buruargiak behar dira. Harrokeria gutxiago behar dugu, baina gizakiaren berezko

arazoa da hori. Ulertu behar dugu eten bako hobetzea ezinezkoa dela, eta lantzean behin gauzak moldatu egin behar direla. Pentsatzen eta berriz pentsatzen laguntzen du iraganak.

Orduko errebantismo giroak itzulera ere nabari duzu gaur.

Herrialde alferrik, xahutzaileak... estereotipo nazional- tatar buelatzen ari gara, eta Europako politikoa kalitate eta kudeaketa gaitasuna asko ari da hondatzen.

Totalitarismoak aupatu zituen 1920ko hamarkadako arriskuak ikusten dituzu orain ere?

Populismoa indartzen ari da. Ez gaude duela ehun urte bezala, baina antzekotasun handiak daude. Etsipen sozial handia dago, eta etsipena proposamen sinplisten bitartez bideratzen da. Orduan faxismoa eta komunismoa izan ziren. Orain, berriz, ezinezkoak ziruditen muturreko nazionalismoak ikusten ari gara: Herbehereetan EBtik ateratzekoaren kostua neurtzeko eskean, Suitza etorkinei hesiak jartzen, Frantzia europarrak atzerirratzen... Bigarren Mundu Gerra osteko joko arauak kolokan jartzen ari gara.

Aldatu behar dira joko arau horiek?

Oso ondo funtzionatu zuten, baina moldatu beharra dago. Joko arau eragin korragoak behar ditugu, ez hain eurozentristak. 1990era arte Mendebaldeak kontrolatzen zituen joko arauak, baina harrezkero ez. Horretara egokitzen ez bazara, ekaitza dator.

Versaillesko Bakearen joko arauak, hain zuzen, ekonomikoki ito zuten Alemania.

Keynesek 1919an *The Economic Consequences of the Peace* liburuan [Bakearen ondorio ekonomikoak] iragarri zuten Berlinen zigorrak etorkizuneko gatazkarentzako oinarriak zirela. Gainera, gerra ostean lau inperio desegin ziren. Estatu berriak sortu ziren

Europar, batzuk bideragarritasun ekonomikorik bakoak. Sekulako arrakalak sortu ziren kontinentean, eta nazionalismoak gotortu ziren. 1929ko krisiaren eta hiperinflazioaren kalteak ere handiak izan ziren Alemanian.

Gerrak zelatan eragin zuen herritarren egunerokoan?

Bitxia da, baina Gerra Handiak eragin txikia izan zuen arlo zibilean. Hildakoen artean bakarrik %5 ziren zibilak; bigarrenean, %50tik gora izan ziren. Goi klaseko gizonak, gerrara joan zirenak, patriotismoak grinatuta joan ziren. Langile klasea derrigorrean eraman zuten lubakira. Langileak esplotatzeko sistematzat ikusi zuten gerra, eta langileen mugimendua sendotu zuten horrek.

Emakumeen rola gainera kontzientzia indartzeko ere balio izan zuen guduak?

Gizon guztiak frontearen aldean, eta emakumeak jardura ekonomikoari eusteko erabili beharra ikusi zuten. Lehen aldiz sartu ziren andreak lan merkatuan. Lehen Gerrak sortu zuen emakumeak bizitza sozialean gehiago parte hartu behar diren kontzientzia, eta mugimendu sufragistak hauspotu zituen. 1920ko hamarkadan hasi ziren emakumeak bozkatzeko Erresuma Batuan, eta apurka-apurka Europako gainontzeko herrialdeetan.

KLASEEN ARTEKO GERRA



Errusiako tsar Nikolas II.a, bere soldaduei adore ematen; gerran izandako hondamendiak erraztu zuen iraultzaren garaipena.

Gerra pizteak arrakala nabarmenak ireki zituen nazioarteko sozialismoan, eta krisi sakonean murgildu zuen II. Internazionala; handik hiru urtera, baina, iraultza sozialista batek arrakasta erdietsi zuen Errusian.

Gotzon Herrosilla

Bi gertaera historiko nagusik astindu zuten mundua XX. mendeko bigarren hamarkadan. Lehen Mundu Gerra izan zen lehena, milioika hildako eragin eta Europako mapa errotik aldatuko zuen nazioen arteko borrokaldia. Bestea ere gatazkatsua eta bortitza izan zen, baina, nazioen arteko liskarra barik, klaseen arteko borroka izan zuen sorburu eta hauspo.

Europako mugimendu iraultzaileak indartsu zeuden 1910eko hamarraldiaren hasieran. «Europa zeharkatzen zuten mamua», Marx eta Engelsen hitzak erabilia, mehatxu garrantzitsutzat hartzen zuten mota guztietako botere politikoa eta ekonomikoak. 1914ko gerrak pikutara bidali zituen asmo iraultzaile guztiak, zatiketa eragin baitzuen alderdi eta erakunde sozialista askotan. Baina, handik hiru urtera, arrakastaz buruturiko lehenengo iraultza sozialista gertatu zen, non eta Errusian, kapitalismoaren garapenetik oso urrun zegoen herrialde batean.

Gerra amaitu zenean, 1918an, mundua ez zen lau urte



Petrogradeko sobietaren bilkura bat, 1917an.



Soldadu errusiarren agerraldia, 1917ko otsailean.

lehenagokoa. Eta gertaturiko aldaketen artean, kapitalismoaren hegemonia apurtzen zuen estatu berri bat sortu izana ez zen munta txikienekoa, hurrengo hamarkadetan frogatuko zen legez.

Lurrikara

1914ko gerraren pizteak lurrikara moduko bat eragin zuen hainbat arlotan, eta, besteak beste, alderdi sozialisten arteko elkartasuna ere zartatu zuen. 1912an, alderdi sozialistek Basileako Agiria izenpetu zuten, eta, han, nazioartean garatzen ari ziren tentsioak «kapitalisten irabazi nahiei eta asmo dinastikoei» egotzen zizkieten. Sinatzaileen ustez, gerra ezin zen justifikatu «herri interesen aitzakiarekin», eta «dangileek elkarri tirokatzea» krimen handitzat jotzen zuten. Baina bi urte geroago gerrak ez-tanda egin zuenean, alderdi sozialdemokrata gehienak nor bere nazioaren gobernuarekin lerrotatu ziren. Horrek, praktikan, II. Internazionalaren gainbehera ekarri zuen.

Gerra aberriaren interesen izenean justifikatzen zuten sozialdemokraten jarrerari *defentsismoa* deitzen zaio, eta Europako alderdi sozialista gehienetan nagusitu zen. Baina, ildo horren aurrean, kritiko agertu ziren zenbait iraultzaile. Leninek, esaterako, «harrapakina banatzeko lapurren arteko gerratzat» jotzen zuen 1914an hasitakoa, eta «aberriaren defentsaren aitzakiatan» gerra defendatzen zuten sozialdemokratak «sozialchauvinista» gisa definitzen zituen.

Zer gertatu zen hain denbora laburrean jarrera aldaketa hain handia izateko? Ludger Mees Euskal Herriko Unibertsitateko Gaur Egungo Historiaren katedradunak dioenez, gaia «konplexua» da, eta azalpen bat baino gehiago egon daiteke horretarako, baina bat nabarmendu du: marxismoak, eta marxismoa oinarri hartuta sortu ziren alderdi sozialdemokratek, nazio gatazkak aztertze-

an izandako «hutsunea». «Marxek eta Engelsek ez zuten denbora askorik galdu gai horretaz gogoeta egiteko, eta arazo horren inguruan idatzi zuten apurra beren analisi konplexuekin bat ez datozen teoria sinpleak izan ziren: nazionalismo oro burgesiaren asmakizuna ei zen, langileak banatzeko helburua zuen tresna ideologikoa eta abar».

Meesen aburuz, Marx ez zen jabetu nazionalismoak «nolako eragina zuen eta izango zuen etorkizunean ere» herritarren artean, eta gabezia hori II. Internazionalako alderdietara igaro zen. «Internazionalismoa zen haien ideologia ofiziala, baina laster hasi ziren arazoak. Austria-Hungariako Inperioko Alderdi Sozialdemokratik, esaterako, inperioa osatzen zuten nazioak ere biltzen zituen: txekiarrak, serbiarrak, hungariarrak eta abar. Baina lehenengo gatazkak sortu ziren, nazionalitate horietako sozialdemokratik alderdi berezituak izateko eskubidea aldarrikatzen baitzuten». 1908tik aurrera, nazionalitate bakoitzeko sozialistak joan ziren banan-banan alderdiak sortuz, SDAP Austriako Alderdi Sozialdemokratik aparte.

Gerraren aurreko jarrera aldaketa horretan, SPD Alemaniako Alderdi Sozialdemokratarena izan zen, beharbada, esanguratsuena; izan ere, hasieran gerraren kontrako manifestazioak antolatzen zituzten, baina gerra babesteari ekin zioten oso denbora laburrean. Parlamentuan, SPDko kideek bat egin zuten gainerako alderdietakoekin, eta ia aho batez onartu zuten gerra bonuak ateratzea operazio militarrik finantzatzeko. Are gehiago, gerrak iraun bitartean grebarik ez antolatze konpromisoa hartu zuten SPDk.

Edonola ere, SPDko kide esanguratsu batzuk, batez ere Rosa Luxemburg, Karl Liebknecht eta Clara Zetkin, ez ziren bat etorri jarrera horrekin, eta gogor kritikatu zuten. Hortik sortu zen *Liga Espartakista* izeneko taldea, gerraren kontrako

jarrera irmoa izango zuena eta, urte batzuk geroago, Alemaniako Alderdi Komunistaren ernamun bilakatuko zena.

Errusiako iraultza

«Gerra inperialista gerra zibil» bilakatzea proposatzen zuten Errusiako Alderdi Langile Sozialdemokrataren ildo boltxebikeak. Hala egin zuten. 1914tik 1917ra, gerra sekulako hondamendia izan zen Errusiarentzat: porrotak bata bestearn atzetik iristen ziren, hildako kopurua izugarria zen, herrialdearen ekonomiak erreka jo zuen, eta etsipena gero eta hedatuago zegoen soldaduen zein herritarren artean. Etsipen hori baliatu zuten iraultzaileek.

1917ko otsailean, grebek, istiluek eta armadaren errepresioak goia jo zuten, eta, handik gutxiira, Errusiako tsar Nikolas II.ak amore eman zuen, eta behin-behineko gobernu osatu zen oposizioko indarrekin, gerrari akabera eman eta herrialdea demokrazia parlamentario batera eramateko helburuz. Baina gerraren amaiera atzeratuz joan zen, eta boltxebikeek jakin zuten herritarren ezinegona bideratzen, urte hartako urrian bigarren iraultza antolatuta eta boterea eskuratzeko.

Gerraren kontrako sentimenduak zerikusi handia izan zuten boltxebikeen garaipenean. Ludger Meesen tesia da Lehen Mundu Gerraren eraginik gabe sobiet iraultza ez zela gertatuko. «Errusian, gerraren ondorioak guztiz uztarturik zeuden klase borrokarekin. Langile eta nekazari pobreak joaten ziren gerrara, eta haiek pairatzen zituzten gerraren ondorioak; aberatsen semeak, berriaz, ez ziren gerrara joaten, eta luxuzko bizimodua eramaten zuten. Sentimendua zen boteretsuek, gerra antolatu zutenek, gerra baliatzen zutela boterea bermatu eta esplorazioa areagotzeko. Gerraren kontrako sentimendua sistemaren kontrako gorrotoarekin nahasten zen. Boltxebikeek, nahiz eta hasieran gutxi izan, ederki baliatu zuten egoera hori».

Iraultza gailendu ostean, gerra amaitzea izan zen lehenengo zeregina, eta hala egin zuten 1918ko martxoaren



Viadimir Iliitx Ulianov Lenin, 1918ko irudi batean (erdian).

ODOLETAN ITOTAKO IRAULTZA

Lehen Mundu Gerra amaitu aurretik, beste iraultza garrantzitsu bat gertatu zen gudan zeuden herrialdeetako batean. 1918ko azaroan, Kielen (Alemania) ainguratuta zeuden Alemaniako itsas armadako ontzietako marinela altxatu ziren beren nagusien aginduen kontra. Alemaniak galdua zuen gerra; horren amaiera gertu ikusten zuten guztiek, baina Alemaniako Gilen II.ak azken erasoaldia agindu zuten, bere jeneralen ohorea salbatu eta bake hitzarmenei begira jarrera indartsuagoa eskuratu ahal izateko. Marinelek uko egin zioten horri.

Errusiako Urriko Iraultza bizi-bizi zegoen oraindik Alemaniako ezkertiarren gogoan. Eta, Errusian bezala, Alemanian ere gutiz hedatuta zegoen gerraren kontrako sentimendua, urte askotako sufrikario latzaren ostean. Kieleko marinelen matxinada laster hedatu zen Alemania osora. Sobieten ereduari jarraituz, langile eta soldaduek osatutako kontseiluak eratu ziren hainbat hiritan. Gilen II.ak boterea utzi zuen azaroaren 9an, eta, hurrengo egunean, errepublika ezarri zuten, geroago *Weimarko Errepublika* izenez ezagutuko zena. Horrek azkartu zuen Alemania errenditzea eta gerra amaitzea.

Baina laster sortu ziren desadostasunak. SPDko sozialdemokratik sistema parlamentarioa ezarri eta gainerako indar politikoekin kolaboratzearen aldekoak ziren. Ezkertiarren artean erradikalenean, Liga Espartakista osatzen zutenek batez ere, iraultza sozialistaren lehenengo pausotzat jotzen zituzten azaroko gertakariak.

KPD Alemaniako Alderdi Komunistak, hilabete lehenago espartakistek sortutakoak, matxinada egin zuen 1919ko urtarrilean. Gogor jazarri zitzaizkien. Ehunka lagun atxilotuak, torturatuak eta hilak izan ziren, horien artean Rosa Luxemburg eta Karl Liebknecht.

3an, Brest-Litovskoko Itunaren ondorioz. «Leninek kritika gogorak jaso zituen», azaldu du Meesek, «Errusiarren errenditzetat jotzen zutelako askok. Izan ere, lurralde ugari galdu zituen Errusiak hitzarmen horretan, baina herritarren lehenetsuna gerra amaitzea zen».

Sobietak

1917ko otsailetik urrirako tarte horretan, botere egitura batzuek itzala egin zioten behin-behineko gobernuari: sobiet edo kontseiluak, hain zuten. Askotan esan da Petrograd hiriko sobietak —gaur egungo San Petersburgo, garai hartan herrialdearen hiriburua zena— egiazko gobernu izan zirela zenbait arlotan hilabete gatazkatsu haietan. Langile eta nekazariak osaturiko batzarrak ziren sobietak, gune jakin batean herritarren parte hartze zuzena bermatzeko helburuz sorturikoak. Gune hori geografikoa izan zitekeen, hots, herri bat edo hiri bat, baina lantegietan ere antolatuta zituzten, eta horien aurrekaria 1905eko iraultzan sorturiko batzarretan topatu behar da.

«Hasieran, gaur egungo terminologian *demokrazia zuzena* dei dezakegunaren ariketa izan ziren sobietak», dio Meesek, «tsarrak agintea utzi ondoren sortutako botere hutsunea bete zutenak». Haien izaera plurala zen. Boltxebikeak nagusi ziren Petrograd, Mosku eta Uraletako sobiet gehienetan, baina mentxebikeak gehiago ziren zenbait hiri garrantzitsutan, eta sozialista iraultzaileek, berriaz, nekazarien sobiet gehienak kontrolatzen zituzten.

Urriko Iraultzaren aurreko prozesuan, botere guztia sobieten esku uztea izan zen boltxebikeen aldarrikapen nagusia. Iraultza gailendu ostean, sobietak izan ziren estatu berriaren oinarria, eta Errusia Sobiet Errepublika Sozialista gisa egituratu zen. 1922tik aurrera hartuko zuen *Sobiet Errepublika Sozialisten Batasuna* izendapea.

Ordurako, sobieten izaera oso aldatuta zegoen, Meesek dioenez: «Urriko Iraultzaren ostean, gerra zibila piztu zen. Boltxebikeek aitzakia topatu zuten horretan, esaten zutelako horrelako egoera batean ezin zela zatiketarik onartu, eta sobietetan egon zitezkeen iritzi kritikoak isilaraziak, jazarriak eta zigortuak izaten hasi ziren».

Meesen aburuz, bilakaera horretako bihurgunea 1921ean gertatu zen, Kronstadteko matxinada izan zenean, «hain zuten, sobieten hasierako sistema pluralera itzultzeko eskatzen zuten matxinada, eta Trotskik zorrotz zapaldu zuena. Gerotik, Alderdi Komunistaren agintea sendotzeko eta kontrolerako tresna izan ziren sobietak».

Memoriaren gorabeherak



hiltzaileak eta hildakoak, jendea bizia ematera bultzatu zuten militarrek eta frontean bizia emana zuten soldadu xumeak. *L'Oeuvre* egunkari sozialistak, bere partetik, nabarmendu eroritako gehienak ez zirela ezezagunak, utzikeria zela-eta ez identifikatuak baizik.

Lehen Mundu Gerrak heriotzaren demokratizazio masiboa ekarri zuen, eta, horren ondorioz, monumentuak ere demokratizatu egin ziren; horren gailurra, soldadu ezezagunaren hilobia izan zen. Monumentu horiek, halere, ez zuten soilik galdutakoak gogoratzeko balio: baita haien sakrifizioari zentzua emateko ere.

Bai eta jendea nazionalizatzeko ere: gerraren bidez, tokian tokiko nekazariak herritar nazional bihurtu ziren. Odola emanez, soldaduek aberriari adierazia zioten beren atxikimendua. 1920ko azaroaren 11n, soldadu ezezagunaren hilkutxa Garaipen Arkura zihoazela, guraso anitzek «beharbada nirea da» erraten omen zuten, Frantziaren alde borrokan ibilitako normahi izaten ahal zen kutxa hartan zeramatena. Edo, tira, kasik normahi.

Herriartasuna

Beharbada historialari frantsesek ere kontatua dute, baina nik aleman bati, Volker Ackermann-i, irakurri nion: Frantziaren aldeko borrokan hildako soldadu guziki ordezkatuko zuena zortzi gorpuren artean bereizi zuten. Horretarako, gudalekuen arabera, bederatzik eskualdetan banatu zuten Frantzia; bederatzietarik batean, baina, ezinezkoa omen zen jakitea azaleraturiko hondarrak frantses batenak ote ziren, edo aleman batenak, eta inork ez zuen Pomeraniako granadero baten hezurak *poilu* frantses batenekin nahasteko arriskua hartu nahi. Zortzi gorpua, beraz. Baina zortzi eskualde horietarik batean ere, Verdunen hain zuten ere, izan ziren gorabeherak: antza, lurretik ateratako lehen gorpua onartezina izan zen. Frantziako armadako soldadua bazen ere, ez zen behar bezain frantsesa, senegaldarra baitzen, beltza, Inperioko morroia. Hortaz, gorpua ilunegi hura baztertu, eta bertze bat bilatu zuten horren ardura zuen batzordeak.

Frantziako nazionalismo zibikoan –eta ez etnikoan–, herriartasuna kontzeptu abstraktua da, baina haren subjektu unibertsa kolore zuriko gizon baten gorpuan gauzatu omen da hobekien: *On peut mourir au front / Et faire toutes les guerres / Et beau défendre un si joli drapeau*, kantatzen zuten duela urte batzuk Zebda taldeak, xalotasunik gabeko gure garaiari dagokion bezala.

Ezari nahi izan zuten memoria tolesgabea, hildakoen monumentuak omenaldia ziren gerrako biktimei. Gure memoria ironikoagoan, aise ikusten dugu erruak zuritzeko balio izan zutela, eta haien ustezko demokratizazioaren azpian, inperialismoaren aztarnak ere badirela.

MCMXIV

«Inoiz ez horrelako xalotasunik, / Ez lehenago edo harrezkerotzik, / Hitz bakar bat ere erran gabe / Iragan bihurtu zen hura bezalakorik»: Philip Larkin da, zutabe honetarako kaskar eta tarrapatata euskarara ekarria, 1914an akitu zen mundua oroitzen. Itsasoaz bertzeldean, Austria aldean, Joseph Roth-ek Austriako Inperioaren gainbehera izanen du mintzagai bere liburu anitzetan, eta Stephan Zweig-ek atzoko mundua gogoratu du bere memoriatan. Lehen Mundu Gerrarekin batera paradisu hondatu zen, hainbat idazlek erraten dutena sinestera: paradisu burgesa, betiere. Lehen Mundu Gerrak langileen nazionalizazio masiboa ere ekarri zuen, eta, horrela, kontzientzia hartze prozesu bati muga paratu zion.

Langileak eta herriak: Errusian sobietek boterea hartu zuten, mapetan Austria-Hungariako eta Turkiako inperioek hartzen zuten tokian herrialde berriak sortu ziren, bai eta Baltiko aldean ere. Iruñean, 1921ean, Victor Praderak mintzaldi sonatua eman zuen Centro Católico-Españolen inaugurazioan: elkarte berria katolikoa zen, Europa-ko ekialdean irabazle aterea zen komunis-

mo ateoari eta haren eraginari aurre egiteko; eta espainola, Espainia, Europako erdialdeko imperioa ez bezala, hauts ez zedin. Nafarroako konkistan Gaztelaren kontra borrokatu zirenak, ondorioztatu zuten Praderak, traidoreak izan ziren.

Londresen eta Parisen, 1920ko azaroan, Westminster abadian eta Garaipen Arkuraren azpian, soldadu ezezagun bana lurperatu zuten, frontean eroritako guzien omenez, horrelako triskantzarik berriz gerta ez zedin. Baina horretan ere, xalotasunik ez.

Memoriaren ironia

Lehen Mundu Gerrak inozentziaren akabera ekarri zuen, eta, Paul Fussellen arabera, ironia bihurtu zuen gure hizkerako figura nagusia. Ironia, ordea, falta da Gerra Handiko memoriaren lekuak ikertu dituzten zenbaiten artean: soldadu ezezagunaren figuran lubakietan eroritako guziei egiten omen zaie omenaldia.

Izenik gabeko soldadu haren katabuta Garaipen Arkuan uzteko ekitaldia bihar-munean komentatuz, 1920an, *L'Humanité* egunkari komunistak azpimarratu zuen zeremonia hartan maila berean ibiliak zirela



ninaizzureaita@berria.info

Pertsonaren alde



Bihar jai

Mikel Elorza

Inork imajina dezake gauza zantarragorik zera baino, pertsona batek ni hiltzeko eskubidea duela ni ibaiaren beste aldean bizi naizelako eta haren printzeak neurearekin liskar bat duelako, nahiz eta gu bion artean deus ez egon?

Balio zuen, balio zuenez, alboan paratu dudan Pascalen pentsamenduak duela 100 urte—gerra hari buruzko liburu batean irakurria dut nik—, milioika gazte, eta sarraskiaren bigarren urteik aurrera ez hain gazte, *aberriaren alde* dena ematera bidali zituztenez. Eta balio du egun ere, nahiz eta gerra desberdin bizi dugula pentsatu. Gerrarekin benetan gertatzen delako Mahoma eta mendiarena, eta zu gerrara joaten ez bazara ere, gerra zuregana etortzen da, zuzenean etorri ere. Inoiz baino zuzen eta suntsigarriago. Pentsa, misilei ere *inteligente* deitzen diegu, horren kontraposizioz ergelak gu bagina bezala, eta bagara, eta delako misilak edo *drone*-ak—perbertsioaren gailurra, paradigma, ez naiz errepikatzen nekaturko—ez direnez errazten, erratuta daudenak lehergailuak jotako etxean etzei-ospakizun batean zeudenak dira, ezkontzako gonbidatuak izateagatik terrorista suntsigarriak izan beharrean.

Ez dakit droneek Pakistanen edo Yemenen eragiten duten izua eragingo zutenetz 1914an, baina zepelinak erasoan ikustea ere ez zen izango askoz samurragoa Frantzia, Alemania edo Begikako bizilagunentzat. Haietako asko, egungo Siriakoak edo Afganistangoak bezala, adibide bat besterik ez da, ez ziren gerrara joan eta gerra gainera etorri zitzairen. Orduan batez ere lurretik, gaur egun gehiago airez. Orduan hurbilagoatik, egun telekomandoz.

Orduan ere bai airetik, hala ere, gerora Espainiako gerran eta batez ere II. Mundu Gerran «perfekzioa» eraman zena I. Mundu Gerran ere frogatu baitzen: airetikako eraso. Nahiz eta, Ignazio Aiestaranen liburu bikainak eta baita Sarrionandiaren *sariakera* mardulak erakusten dutenez, Europako potentziek, duela 100 urte elkar akabatu zutenek, Afrikako baratzean egin zituzten bonbardaketa-entrenamenduak.

Koloniak baitzituzten, XX. mende hasieran, frogetarako baratze Europako estatuek, gerora AEBek *patioa* eduki duten bezala. Orain erosoago zaigu oinak basatzen sartu gabe, gerra ahal dela osorik hara eramatea.

Baina duela 100 urte, onartu beharra dago, *hemengoak* hil ziren nagusiki, Europako gazteriak bisitatu zuen infernua, lurrean ere. Milioika lagun Europako erreketan—alegia, lubakietan—, zelaietan, basoetan. Euskal



1914ko Gabonetan, Mendebaldeko Frontean, su-etena egin zuten hainbat soldaduk euren kabuz. Bi aldeetako hainbat norenik gabeko lurrean elkartu ziren, eta agurrak eta opariak trukatu zituzten. Irudian, soldadu alemaniarak eta britainiarrak.

herriar mordoia *mort pour la patrie*, herrieta-ko monumentuek erakusten dutenez, garai hartako hainbat kronika eta kontakizun bikainek kontatzen dutenez. Gerra zikina, makurra, madarikatua, beldurrez bete, oinazez, saminez, miseriaz, duela 100 urtekoa. Duela 100 minutukoak bezalaxe.

Ez ziren, hala ere, *hemengoak* bakarrik hil. Gaur egun tiroz hartzen ditugu Marokoko mugan handik Europara nahi dutenak, tiroz eta, puskaz okerragoa dena, lege kanpo-raziailez, baina atek ireki daitezke. Gure alde hiltzera baletoz, adibidez. 280.000 marokoa, aljeriar eta tunisiar borrokatu baitziren, *pour la patrie*. Eta beste hainbat koloniatoko bizilagun, beste hainbeste *patrie*-ren alde. Orain ere Espainiako Armadan parte hartzen duten atzerritarrek—Hego Ameriketako *anai-arrebek*—herriartasunerako pauso zuzena dute.

Eta nik Frantzia, Belgika eta Alemaniako zelaietako infernuek kideak ditut gogoa, hurbiltasunagatik, mundua esfera den edo ez den ez dakit, baina zentroa eduki badaukalako eta gu zentrotik bertan bizi gare-lako, orduan eta orain.

Baina Errusiako lurretan ere ez zen samurragoa izan kontua, Italian, Turkian, eta batez ere 100 urtetan bere lurra hainbat aldiz sarraskitzen ikusi duten lurretan: Polonian, Bielorrusian, Galitzian, Hungarian, Ukrainako lurretan edo Balkanetan. Erdi eta Eki Europan.

XXI. mendea ere ez dute bare hasi Kieven, Errusia eta Europa arteko lehian. Gero eta agerikoagoa da egun Kieven herio eta su ari

direnak, batzuk eta besteak, ez direla Europari edo Moskuri men egiteagatik ari; gatazkaren oinarrian hori egonagatik ere, gatazkak bere bide propioak hartu ditu, ohi duenez. Duela 100 urte inperio arteko borrokek, Austria-Hungaria eta Serbiaren arteko tirabirak piztu zuen garrak inork uste ez zuen sua ekarri zuen gisan.

Kievekoak harrituta nauka, posizionatzeko zail. Ez dut Janukovitxen boterearekin egingo, jakina, boterearekin ez, baina oposizio *demokrata* ere errezeloz ikusten dut—Venezuelakoaz hobe ez hitz egin, errezeloa baino gehiago da—, batik bat paramilitar eta ultranazionalista eskuindar eta enparauiek lagunduta datorrelarik, eta atzerritik hauspotuta beste gatazka batzuetarako darabiltzaten neurgailuak guztiz iraulita. Ekidistantzia txarra da, alde guztiek ematen dizutelako, futbol partidako arbitroa bazina bezala—gure gatazkan ere bizi izan dugu horretarik—eta beraz kontra jarri beharko naiz, denen kontra, pertsonaren alde (*gizon hitza erabiltzeko ez dut arazorik, Anjel Errok kazeta honetan gizarie-z esan zituenak neure egiten ditut, baina Miren Agur Meabek Arestiz esandakoak ere bai, eta beraz pertsonaren alde*). Kontra beraz, duela 100 urte gerraren zeudenak bezalaxe. Orduan ere guztien etsai ziren sozialista eta anarkista eta tankerako beste *-ista* haiek bezala, printzen gerraren kontra, pertsonaren alde.

Aste honetan 25 urte bete dira intsumisio mugimendua ernatu zela Euskal Herrian. Ez zen eredu txarra izan.



FAGOR
FAGOR ARRASATE Knsp. E.

Mundua merkatutzat
globalitatea behartzat
tokikotasuna aukeratzat
euskara lan tresnatzat

www.fagorarrasate.com

LUMA, TIRO, PUN

Tiro eta tiro artean, obus, granada eta gas pozoitu artean, utzi eskopeta, piztu kandela, hartu papera eta luma, eta idatzi kronika bat. Hala ibili ziren euskal prentsaren lehen gerla berriemaileak, soldadu ere baitziren aldi berean. Joan Elizalde *Zerbitzari* eta Jean Saint Pierre *Anxuberro* apez soldaduak eta Jean Etxepare medikua Frantziarentzat gerlari eta *Eskualduna* kazetarentzat kontalari izan ziren aldi berean. Jules Moulier *Oxobi* eta beste zenbaitek ere zituzten idatzi kronikak *Eskualduna*-n. Etxeparek bazuen artikulu informatibo eta analitikoagoetarako joera, baina demagogikoagoak ziren gainerakoek idatziak: soldaduen balentriak, beti irabazten ari, umore oneko, pasadizo bitxiak kontatzen... Sarri, josteta irudi du gerlak haien kroniketan. Beste arma bat izan baitziren lumak gerlan. Frantziaren batasuna, kristautasun katolikoa, ideologia kontserbadorea, alemanekiko herra; horra *Eskualduna*-k sustatu ideiak gerla garaian. Zentsura eta autozentsura, bestalde. *Eskualduna*-ren kronikak irakurritz, hala ere, gerlak Euskal Herrian utzi zuen arrasto sakonaren ertz gehienak agertzen dira. Gerlaz gehien idatzi zuten hiru soldaduen lagin hau, erakusgarri. ■ MIKEL P. ANSA



Frantziako Armadako soldadu bat, idazten, Sommeko frontean nonbait. ATENEU BARCELONES

Soldaduak kronikari 'Eskualduna' kazetan



Joan Elizalde 'Zerbitzari'

■ Ja badu hamalau egun gudu gaitz huntan ari garela [Verdunen]. Zer infernua, hau! [...] Hunat ethoriz geroz, hamalau egunetarik hamar eder izan ditugu. Zer karraskak ere! Nere

parte, beharriak hautsiak bezala ditut. [...] Obusek egin ziloak ditugu errekatzat eta han gaude, gau eta egun, zerua atherbe. Ez diteke urrhatsik egin, burua ez diteke altcha, han berean ez hiltzekotan. Hemendik bizirik atheratuko dena zerbeit ikusirik atheratuko da. [...] Garizuma egiten dugu hemen. Ogirik ez, ez eta arnorik. Baginu bederen ura nahi bezenbat! Hirur egun chortarik gabe. ■ 1916-6-2

■ Bethi badire mihi gaichtoak. Zenbat ez dire alhatu gutaz gerla huntan: soldadoa ase zela gerlaz, bakea baizik etzuela nahi, nola nahizko bakea. Zenbatetan ez dut erran gezurra zela hori? Bai, gerlaz aseak gare. Bai, bakea nahi dugu. Bainen etsaia lehertu eta! ■ 1917-4-6

■ Mendia bezalakoak dire hemengo arratoinak. Eta zer kopeta duten! Sudurretik ausikika hasiko zaizkitzu gauaz, burua estalkietan gordetzen ez baduzu! Ez duzu zeren jateko pichka bat agerian utz: mikorik ez da geldituko: burua itzuli artean, kilimiliklik milikatua dautzute. Gure zaku gehienetako larruak berak iretsiak dituzte, diren bezalakoek! Eta badakizue zeri diren jazartzen azkenekotz nere atherbean? Burdinezko untzieren, barnean zilhatu eta zerbeit kausituko dutelakoan. Karra, karra, karra, nola diren ari! ■ 1917-9-7



Jean Saint Pierre

■ Egun hautan cherto berri bat egin dauku, sukhar ustelaren kontrakoa. Chertatzaile batek ekharri zaizkidan ene ezagun zonbeiten berriak. Galdatu nion ez ote zuen bertzerik ikusi.

Chiquito ere ikusi diat. Erran zautak ibilia dela toki gaichto batean, mandatu batekin; Alamaneri bombak... chichterarekin aurtikitzen. ■ 1915-1-1

■ Iragan asteko irakuraldian ene sail ttipiak huts egin zuen. Ene lehen auzoekin samurtua nintzen zinez: etcheak eta oro herrautsi daizkit Alemanak, nihaur barnean ehortzirik ene ontasun guziekin. Banintuen zonbeit lerro moldatuak, bospasei aldiz orratzean haria sarturik. Papera eta gizona biak hobian egonak gira hiru metre barna: bietarik bat jali zen nolazpeit, hatsa labor eta sudurra zimur; papera nahi duena dathorla aintzurra bizkarrean: erakutsiko diot nun atzeman. ■ 1917-11-16

■ [1917ko iraultza eta gero] Rusia toki hauta zuten: jakitatea chuhur jende chehean eta zentzua ere naski gutartean baino ahulago [...]. Ezagun da obretan, liburuetan, nun nahi den: Rusiano aipatuenean liburu batzu gerla denboran irakurri baititut, ene laguneri erran nioten: Rusiano hoik ez dituk gu bezala eginak: kaskoa zilho die. [...] Zer da gerthatu? Idiak uztarririk gabe lanean emaiten dituenari gerthatzen zaiona: idiek itzaina lehertu, orgak uzkaile eta etcherat joan. ■ 1917-12-21



Jean Etxepare

■ Huna batailun bat lehen mailean, heldu baita mila gizonen ingurua. Zer eremu dauka? Zabalerat, zazpi ehun metra; aitzin gibel bertze hoinbertze. Eremu hortan ez da

erortzen, egun bakotch, hogoi ta bortz obus baino gehiago [egun lasaiez ari da deskribapen honetan, ez oldar egunez]: hogoi bat arin, airean zapartatzen diren hetarik; bortz larrisko lurra jotzearekin zartatzen direnak. [...] Aste bakotch, bizpahiru kolpatu; hamabortzetik, hil bat. [...] Zer! dautazue erranen, ez da obuz gehiago erortzen egun guziez, holako eremu batean! —Ez; behar dute kanoiek iraun, eta bertzalde obuz bakotcha gostatzen da 35 libera, bana bertze. ■ 1916-2-11

■ Lurpezko gerla itsu, hurri, neke hau Japonese eta Rusoek beren artean apur bat erabilia ere omen zuten duela hamar bat urte, Asiako hegalean. Gero berriz Turkoek, —Alemanek bertzeer ikasia heier erakutsirik, —Bulgareen kontra, duela bizpalau urte. Damurik ez gira orhoitu, tenore zeno, bi aitzineko hoitaz. Nigar eingarri ere da gure aintzidarier berer ez baitzeieten erakasten deus holakorik beren eskoletan. Alemanek emeki emeki, gure odolaren gostuz, trebatu beharrak ginen. ■ 1916-2-11

@ 'Eskualduna' kazetaren artikulu guztiak kontsultatzeko, jo webgune honetara:

www.hemeroketa.com

